318 zenbakia. 1998ko apirilaren 3a. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara




Hemen gara!



ACCORD

HONDA



CIVIC 3 atekoa

MENDIOLA

Araba etorbidea,
ARRASATE. Tf. 79 00 11

GUIPUZCOANA
Paketeen garraio eta banaketa

EURODIS

PAKETERIA ZERBITZU EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
+
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniara eta
- Hungariara

BERGARA

**Tf.: 76 36 42**
Faxa: 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak



76 00 00
Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



# Mohameden gora-beherak

**Larraitz Uribesalgo** / Ikaslea

Mohamed ez da Bilbokoa, baina bertan bizi da. Berak eskuz egindako artelan txikiak saltzen ditu Guggenheimetik oso urrun gelditzen den errentan hartutako lokal batean. Mohamedek ez du metroz bidaiatzen: oinez egiten ditu Bilboko toki bat bestetik banatzen duten metroak eta urrunago joateko bera baino zaharragoa den kotxe txiki bat dauka.

Poliziek gelditzeko agindu eta, beste hainbat lagunekin batera, lerro bat osatuz jarri dute bide ertzean. Urduri dago eta baditu arrazoiak horretarako. Milaka gauza pilatzen dira bere buruan eta hotzikarak bere gorputzaz jabetu dira. Instant batez, lehengo astean taberna batean ikusi zuen filmeaz oroitu da. Berak ere espia istorio ulertezin horietako eroi izan nahiko luke eta, noizean behin, heriotzaren arriskua sentitu nahi luke bere zainetan behera.

Berehala kotxeetara sartzeko baimena eman dute poliziek. Kotxe barrura sartu eta irratia piztu du. Ez du txintik ere esan, irratian berak hainbeste gorrotatzen zuen abesti hura jarri dutenean. Bere buruan era guztietako gogoetek leku hartzen duten bitartean, bolantea bi eskuekin gogor helduz abiadan doa. Gogor hartzen du arnasa.

Apika, jadanik ahaztu du noizbait sentitzen irakatsi zion bizitza hura; malkoka bakarrik oroitzen ditu iragan ilun hartaz. Agian ez da oroitzapenik gailentzen bere memorian. Beharbada, motorraren soinu monotonoak bere bizitza gogorarazi dio eta horregatik okertu du bolantea eskuinerantz. Baina, kotxea bidetik irten baino lehen, frenoa gogor zapaldu eta kotxea gelditu egin du. B

*"Oinez egiten ditu Bilboko toki bat bestetik banatzen duten metroak eta urrunago joateko bera baino zaharragoa den kotxe txiki bat dauka Mohamedek"*

## barruan



**Joachim Meyer**

Geyser-Gastecheko presidentea

***"Fagor eta Vaillantek apostu gogorra egin zuten Bergarako lantegiarekin"***

8. orrialdean.



**I. Muruamendiaraz**

Pilotaria

***"Askotan jokatu dugu Errasti anaien kontra eta finala oso gogorra izango dela uste dut"***

22. orrialdean.



**Jose Gorrotxategi**

Sagarpe elkarteko kidea

***"Ez dakit zenbat bildots gertatuko nituen; orain dela 45 urte hasi nintzen..."***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1920.*** Apirilaren 1ean, EAJk Udal hauteskundeak irabazi eta Ignazio Unzueta Bergarako lehen alkate abertzalea izatera pasa zen. Unzueta Euzkadi Buru Batzarreko kide izan zen II. Errepublikaren garaian. Aipatzekoa da, 1909an aurkeztu zela lehen aldiz Udal hauteskundeetara EAJ eta urte hartan ez zuela zinegotzi bakar bat ere lortu.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1879.*** Apirilaren 1ean, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala inauguratu zen.

***1920.*** Apirilaren 1ean, Bizkaiko meategi eta meatz lanetan 6.906 langile ari zirela jakinarazi zen.

**MUDUAN GERTATUA**

***1767.*** Apirilaren 1ean, Jesuitak Españatik bota zituzten.

## zozketak

**BONO LOTO**
**Eguakitza 27**
2-8-24-30-43-48 (osag.42/er.0)
**Astelehena 30**
15-16-30-42-44-46 (osag.25/er.9)
**Martitzena 31**
9-10-16-28-31-41 (osag.37/er.9)
**Eguaztena 1**
3-10-14-25-33-44 (osag.7/er.5)

**PRIMITIVA**
**Zapatua 28**
8-9-13-18-23-43 (osag.47/er.5)
**Domeka 29** ***Gordoa***
4-13-29-37-46-47 (osag.26/er.8)

**ONCE**
**Eguakitza 27:** 13.310 (K. seriea: 021)
**Astelehena 30:** 05.067
**Martitzena 31:** 98.011
**Eguaztena 1:** 24.067

**BESTE BATZUK**
**Bedelkarreko harakinak:** 5.067

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Asteburu honetan ere joan zen astebukaeran egin zuen antzerako eguraldia izango dugu. Hodeiak izango dira nagusi eta euria egin dezake. Tenperaturak zertxobait behera egingo du eta haizeak hegomendebaldetik joko du.

## Ilargiaren aldiak

Ilberri: martxoak 28
Ilgora: apirilak 3
Ilbete: apirilak 11
Ilbehera: apirilak 19

## Eguzkia

*Domekan*

Sortu: 06:54
Gorde: 19:46

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 26** | 21 | -1 | - |
| **Eguakitza 27** | 28 | 2 | - |
| **Zapatua 28** | 22 | 9 | - |
| **Domeka 29** | 20 | 13 | *10,6* |
| **Astelehena 30** | 20 | 10 | - |
| **Martitzena 31** | 21 | 6 | *3,6* |
| **Eguaztena 1** | 20 | 4 | *0,7* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Ankamotz**

Ankamotz gelditu, ibili. Gauza bat ongi amaitu gabe utzi edo zerbaiten faltan gelditu.

*- Aurten jaixak ankamotz geldittu die, Egan ezta etorri tta.*

*-Souak ondo sastu ezian beti ankamotz ibiliko ga.*



JOSU OKINA

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Kafea minbiziari aurre egiteko

Koloneko minbiziaren tratamenduko radioterapiaren eraginkortasuna %150ean hobetzen du kafeinak, Britainia Haundiko "Cancer Research Campaign"ek adierazi duenez. Baina hori lortzeko beharrezko kafeina kopurua hilgarria izango litzateke nerbio-sistemarako. Hori dela eta, koloneko minbiziari aurre egiteko beste metodo batzuren bila dihardute.

## Farmaziak

**Eguakitza 3:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 76 11 74.*
**Zapatua 4:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87.*
**Domeka 5:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87.*
**Astelehena 6:**
GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 76 11 05.*
**Martitzena 7:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 76 19 63.*
**Eguaztena 8:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 76 12 15.*
**Eguena 9:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 76 11 74.*

## Ogia

**Domeka 5:** Ogizun.
**Eguena 9:** Konde.
**Eguakitza 10:** Mizpildi.
**Domeka 12:** Ogizun.
**Astelehena 13:** Konde.

## Telefonoak

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 08 |
| DYA | 78 71 |
| Gurutze Gorria | 76 55 |
| Larrialdiak | 76 12 |
| Anbulatorioa (txanda) | 76 24 |
| Anbulantzia | 55 49 |
| Udaltzaingoa | 77 91 |
| Ertzaintza | 76 53 |
| Suhiltzaileak | 78 28 |
| Osasun Etxea | 76 24 |
| Arrasateko ospitala | 79 53 |
| Asepeyo | 76 16 |
| Pakea | 76 13 |
| Angiozarko medikua | 78 90 |
| Antzuolako medikua | 76 62 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 45 01 |
| PESA | 902 10 12 |
| Taxiak | 76 19 |
| RENFE | 28 35 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 77 91 |
| Udal Artxiboa | 77 91 |
| Igerilekuak | 76 20 |
| Kultur Etxea | 77 91 |
| Liburutegia | 77 91 |
| Mizpirualde Egoitza | 76 13 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 76 14 |
| Erregistroa | 76 13 |
| Jardun | 76 36 |
| Jubilatuen Etxea | 76 21 |
| Postetxea | 76 26 |

# zorion agurrak



**Ane Garmendia**
Martxoaren 31ean 17 urte. Zorionak etxekoen eta koadrilakoen partez!



**Goiatz Agirre**
Martxoaren 24an 14 urte. Zorionak Bergarako lagunen partez!



**Edurne Eguren**
Apirilaren 9an urtebetetzea. Zorionak polideportiboko lagunen partez!



**Aitor Garitano**
Martxoaren 24an 29 urte. Zorionak familiakoen eta Jaioneren partez!

## hildakoak

**Maria Dolores Aranzabal Laskurain**
Martxoak 24, 75 urte.
**Josefa Gabilondo Albisua**
Martxoak 26, 90 urte.
**Dominika Laka Onandia**
Martxoak 26, 77 urte.
**Santos Ena Dieste**
Martxoak 30, 95 urte.

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Julen Nuñez Antolin**
Martxoak 17.
**Unai Agirre Manzisidor**
Martxoak 19.
**Unai Prieto Loidi**
Martxoak 20.
**ANTZUOLA**
**Mikel Arregi Iturbe**.
Martxoak 20.

## eskertza

# Maria Dolores Aranzabal Laskurain



Bergaran hil zen
1998ko martxoaren 25ean.

*Familiaren partez mila esker azken agurra ematera etorri zineten denoi.*

*Bere umore onak eta izaerak jarrai dezatela gure artean.*

## aste santuko elizkizunak

**ERRAMU ZAPATUA**
**19:00:** Santa Marina. Meza.
**20:00:** San Lorentzo. Meza.
**ERRAMU DOMEKA**
**11:30:** Santa Marina.
Erramu bedeinkapena eta Meza.
**12:30:** San Pedro.
Erramu bedeinkapena eta Meza Nagusia.
**13:00:** Santa Marina. Meza.
**ASTELEHEN SANTUA**
**17:00:** Sierbak.
Katekesiko 1.go 2. eta 3. ospakizuna.
**20:00:** Santa Marina.
Elkarteko barkamen ospakizuna.
**MARTITZEN SANTUA**
**17:00:** Sierbak.
Katekesiko 4., 5. eta 6. ospakizuna.
**20:00:** San Pedro.
Elkarteko barkamen ospakizuna.
**EGUEN SANTUA**
**18:00:** Santa Marina.
Azken afariko ospakizuna.
**19:00:** San Pedro.
Jaunaren afariaren ospakizuna.
**19:30:** Elosu. Azken afariko ospakizuna.
**21:00:** San Pedro. Ordu Santua.
**22:00:** Santa Marina. Taldeetan otoitzaldia.
**EGUAKITZ SANTUA**
**10:00:** San Pedro. Gurutz bidea.
**12:00:** Santa Marina. Gurutz bidea.
**17:00:** San Pedro.
Jaunaren heriotzaren ospakizuna.
**18:00:** Santa Marina.
Jesusen heriotzaren ospakizuna.
**19:30:** Elosu.
Jesusen heriotz ospakizuna.
**ZAPATU SANTUA**
**10:00:** San Pedro.
Gorospenak eta Olio sagratuen banaketa.
**20:00:** Elosu. Jesusen piztuetako gaubela.
**21:00:** San Pedro. Pazko gaubela nagusia.
**22:00:** Santa Marina.
Jesusen piztuetako gaubela.
**PAZKO DOMEKA**
**10:00:** Elosu. Meza Nagusia.
**11:30:** Santa Marina. Meza Nagusia.
**12:30:** San Pedro. Meza Nagusia.
**13:00:** Santa Marina. Meza.
**PAZKO II. ZAPATUA (APIRILAK 18)**
**19:00:** Santa Marina. Meza.
**20:00:** San Lorentzo. Meza.
**PAZKO II. DOMEKA (APIRILAK 19)**
**11:30:** Santa Marina. Bataioak.
**13:00:** Meza.



**Jesus Morais Garaioa**
Apirilaren 5ean 18 urte. Zorionak familiakoen partez!



**Jesus Iztueta**
Martxoaren 26an 61 urte. Zorionak biloba Erik eta Amaiaren partez!



**Victor M. Marcilla**
Apirilaren 6an urtebetetzea. Zorionak! Lagunak eta familiakoak.



**Belen Albisua**
Apirilaren 2an urtebetetzea. Zorionak! DBH 2D2ko ikasleak.



**Olatz Ruiz**
Apirilaren 4an 16 urte. Zorionak familiakoen eta koadrilakoen partez!



**Virginia Rubio**
Apirilaren 8an 24 urte. Zorionak koadrilakoen partez!



**Irati Arteaga**
Apirilaren 6an 10 urte. Zorionak familiakoen partez!



**Jon Zabala**
Apirilaren 5ean 4 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Miren Gorosabel Atorrasagasti**
Apirilaren 4an 11 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Izaro Larrañaga**
Apirilaren 2an 9 urte. Zorionak lehengusu eta etxekoen partez!



**Asier Larrañaga**
Apirilaren 2an 13 urte. Zorionak lehengusu eta etxekoen partez!



**Julen Markez Etxabe**
Apirilaren 2an 4 urte. Zorionak familiakoen partez!



**Gorka Davila**
Martxoaren 31n 23 urte. Zorionak arreba Nagoreren partez!



**Miren Maiztegi**
Martxoaren 26n 16 urte. Zorionak familiakoen partez!



**Joana Rocha**
Apirilaren 10ean 17 urte. Zorionak lagunen partez!



**Iker Moreno**
Apirilaren 1ean 5 urte. Zorionak gurasoen eta arrebaren partez!



**Ainhoa Larrañaga**
Apirilaren 2an 6 urte. Zorionak guraso eta ahizpa Zuriñeren partez!



**Juan Karlos Garcia Martinez**
Apirilaren 3an 16 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Leire Jimenez**
Apirilaren 6an 16 urte. Zorionak koadrilakoen partez!



**Bingen Alkorta Garitano**
Martxoaren 30ean 3 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Iraitz Gastiain**
Apirilaren 2an 12 urte. Zorionak gurasoen eta ahizparen partez!



**Iñaki Corral**
Apirilaren 4an 15 urte. Zorionak gelakoen partez!



**Odei Perez**
Apirilaren 6an 3 urte. Zorionak gurasoen eta Deianeren partez!



**Maite Igartua**
Martxoaren 31n 14 urte. Zorionak! Koadrilako, lehengusu eta familiakoak.

# ANTZERKIA

▶ **"La coraje"** antzezlana Vaiven taldearekin, gaur eguakitza 22:30etan Elorrioko Arriola Kultur Aretoan.

# ERAKUSKETAK

▶ **Eskualdeko arte erakusketa** Kultur Etxean domekara arte, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

▶ **Oihana Korkostegi**ren margo erakusketa Nahikari tabernan.

# IKASTAROAK

▶ **Oihulari Klown** taldeak klowneko hasiera ikastaroa eta aktoreei zuzendutako klown ikastaroa antolatu ditu Brinkolako aterpetxean, apirilaren 8tik 12ra. Argibideak: 76 02 55.

▶ **Udalak, INEMaren laguntzaz**, Lanbide Hezkuntzako lehen maila ikasi edota Eskola Graduatua duten 18 urtetik gorako langabetuei zuzenduta, "Automatista de procesos industriales electricos" izenburuko ikastaroa antolatu du apirilaren 14tik uztailaren 31era bitartean. Izen-ematea apirilaren 7ra arte izango da zabalik Udaleko Enplegu Zerbitzuan (77 91 65).

JAIAK

## Erramu Zapatuko feria

**Apirilaren 4an, zapatua, 9:30etatik aurrera**

Bihar 120 bat abelburu izango dira ikusgai Seminarioan eta Ibargarain. Andres Mujika (Bergara), Pedro Arruti (Idiazabal), Arantzazu Jaka (Ubera), Jose Arantzabal (Elgeta), Luis Gorosabel (Angiozar), Pedro Katarain (Idiazabal), Antonio Agirrebarrena (Irun), Juan Maiora (Basalgo), Maximo Zenitagoia (Ubera), Garikoitz Badiola (Elosu), Karlos Ibarrondo eta Jabier Alberdi (Elorrio) partaideek arraza ezberdineko behiak ekarriko dituzte: asturiarrak, pirenaikoak, blondak eta limosinak. Iru-Mendi elkarteak, berriz, bigantxak ekarriko ditu ferian erakusteko. Era berean, baserriko produktuak edota Errioxako ardoa dastatu ahal izango dira eta, nobedade modura, gazta egiteko prozesua erakutsiko da ferian.

Bestalde, 12:30etan, Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketaren sari banaketa egingo da, 13:30etan Azpillaga eta Agirre arituko dira bertsotan, eta arratsaldean, Itziarko Erlete eta Urretxuko Belarretar[en] arteko idi dema jokatuko da Beheko Es[ko]zioan, 17;30etan. Jarraian ahari jokoa i[z]garri da. Plazan ere umeentzako jolas[ak] antolatuko dira eta 22:15etan bertso ja[ial]dia Frontoian Eguzkitze, Amuriza, Itur[ria]ga, Sarasua, Irazu eta Mendiluzerekin. J[o]serra Gartzia izango da gai jartzailea.

Bertsoak direla eta, antolaketa lanet[an] aritu den Manu Oruesagatik orain 40 ha[n] urte Uztapidek Lasarteri Bergaran bert[an] bota zion bertso bat ekarri nahi izan di[gu] gogora, oraindik ere nekazarien egoe[ra]ren adierazgarria delakoan. Horra hor be[r]tsoa: *Aizu laguna baserritarra/ gogo[an] dezu goguan/ ta erantzuna emango d[i]zut/ merezi dezun moduan/ baserritar[ra] egongo litzake/ bera sortu zen txokua[n] laguntasuna izango balu/ propaganda[ren] ren lekuan.* B



Ganaduaz gain, baserriko produktuak eta makineria izango dira feria[n]

▶ Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatuta, **kirol alternatiboen ikastaroa** Aretxabaletan; frisbee-a apirilaren 15ean, patinajea apirilaren 16an eta street hockeya apirilaren 17an. Izena emateko epea hilaren 14a baino lehen. 77 91 35.

# LEHIAKETAK

▶ **Jardun**ek Bergarako jaietan aterako duen **pegatinarako** esaldi lehiaketa deitu du. Herriko taberna eta ikastetxeetan jarritako kaxetan laga ahal izango dira proposamenak apiri[la]ren 25era arte. Irabazlea[ren] saria: 10.000 pezeta.

▶ **Bergarako XIII. Literatur Lehiaketa**. Adinaren arabera, bost talde bereiztuko dira et[a] lanak apirilaren 22rako

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA, ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK.
Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

ARGI PLASTI[C]
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

eman beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak bertan. 77 91 66.

▶ **I. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa**. Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da. Estilo eta teknika libreaz, markorik gabe, lanak euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira, 55x46 cm. eta 146x114 cm. bitarteko neurrian. Lanak apirilaren 20tik 30era bitartean entregatu beharko dira Kultur Etxean, 16:00etatik 21:00etara. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka oroigarria jasoko du.

## DEIAK

▶ Domeka honetan eguerdiko 12:00etan Bilbon (Aita Donostia plazan) **euskal presoak Euskal Herrira** ekartzea eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzeko manifestazioa izango da. Besteak beste, Senideak, Gestorak, Salhaketa eta Herria 2.000 taldeek, Eusko Alkartasunak eta ELA eta LAB sindikatuek hartuko dute parte manifestazioan.

▶ **Jubilatuentzako** bidaiak Lisboako "Expo"a bisitatzera. Maiatzaren 24tik irailaren 27ra bitartean txanda ezberdinak izango dira. Izen-ematea eta argibideak Marsans bidaietan, 45 65 93 telefonoan edo Jubilatuetan (76 21 40).

▶ **Presoak Euskal Herrira** ekimenak firma bilketa egingo du zapatuan. Kalean bost mahai ipiniko dira presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko.

▶ **Alpeetara eski irteera** apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Polen, astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

▶ **EAJ**k hilaren 12an Aberri Eguna Bilbon ospatuko du. Bergarako EAJk bertara joateko deia egiten du. Bazkarirako eta autobuserako txartelak Batzokiko tabernan eskuratu daitezke.

▶ Gipuzkoako **Odol Emaleen elkarteko batzarra** apirilaren 26an Bergaran. Bazkarirako izen ematea (3.000 pezeta) Puy eta Guallar farmazietan, Agirrebeña zapatadendan edota odol emaleen lokalean hilaren 20a baino lehen.

## KINTADAK

▶ **1949**an jaiotako bergararren bazkaria bihar zapatua Tartufon. Izen ematea bertan, 76 35 51 zenbakian.

▶ **1964**an jaiotakoen bazkaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke).

▶ **1953**an jaiotakoen bazkaria uztailaren 4an Antxonin. Izen-ematea bertan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**

**El coleccionista de amantes**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Starship tropers**
Eguena: 17:00, 19:30, 22:30.

**La tormenta de hielo**
Eguakitza, hilak 10: 19:30, 22:30.
Zapatua, hilak 11: 17:00, 19:30, 22:30.

**Jackie Brown**
Domeka, 12: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, 13: 17:00, 19:30, 22:15.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Secretos del corazon**
Eguakitza: 22:00.

**Grandes esperanzas**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

**Anastasia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR. Unzaga**

**Desmontando a Harry**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**Anastasia**
Zapatua eta domeka: 17:00

**EIBAR. Rialto**

**Esfera**
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**

**Cosas que deje en La Habana**
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**ANTZUOLA. Gazinema**

**Sleepers**
Eguakitza: 22:00.

**Romeo y Julieta**
Domeka: 16:30.

### EL COLECCIONISTA DE AMANTES

***Zuzendaria**: Gary Fleder.*
***Aktoreak**: Morgan Freeman, Ashley Judd.*

*Alex Cross* detektibearen iloba modu misteriotsuan desagertu da. Carolina Iparraldeko estatuko unibertsitatean bahitua izan da eta, nahiz eta bere lan esparrua ez izan, *Cross* bertara joango da. Beste zazpi emakume desagertuta daude eta horietako bi hilik agertu dira dagoeneko...

### LA TORMENTA DE HIELO

***Zuzendaria**: Ang Lee.*
***Aktoreak**: Kevin Kline, Joan Allen, Sigourney Weaver.*

Ang Leek (*Sentido y sensibilidad*) gidoi onenaren saria jaso zuen iaz Cannesen filme honengatik. 1973an girotutako filme honetan, orduko gazte eta helduen kezkak azaltzen zaizkigu, hainbat bikoteren gorabeheren bitartez.

### JACKIE BROWN

***Zuzendaria**: Quentin Tarantino.*
***Aktoreak**: Pam Grier, Samuel L. Jackson, Robert De Niro.*

*Reservoir dogs* eta *Pulp fiction* filmeen arrakastaren ondoren, biolentzia gutxiagoko lana egin du Tarantinok oraingoan. Aurrekoetan moduan, erreparto korala, musika aparta eta primeran landutako istorioa. Trafikatzaileak, polizia eta beste hainbat pertsonaje tartean direlarik milioi erdi dolar jokoan dago...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

TITO'S
Tito's taberna.
Kafe dastaketa.
Simon Arrieta plaza 3.

## JOACHIM MEYER

Geyser-Gastecheko zuzendaritzako ptea.

# *"Fagor eta Vaillantek apostu gogorra egin zuten Bergarako lantegiarekin"*

**Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak banatu ohi dituen sarietan, San Juanen kokatuta dagoen Geyser-Gastech enpresak Gipuzkoan kanpoko inbertsio onena izan denari dagokion saria jaso du. Joaquim Meyer zuzendaritzako presidentearen ustetan, sari honekin Fagor eta Vaillantek egindako apostua errekonozitu da.**

**G.** Zer suposatu du sari hau jasotzeak?

**E.** Enpresa honetako bi akzionistentzat (Fagor eta Vaillant) erronka bat izan da Geyser-Gastech martxan jartzea. Sari hau lehen errekonozimendu bat izan da, gogo eta ilusio handiko proiektua baita gurea. Vaillantek Euskal Herrira etortzeko apostua egin zuen eta sari honekin ikusten da primeran hartu gaituztela.

**G.** Urtebete baino gehiago daramazue martxan. Zein da zuen balorazioa?

**E.** Nahiz eta aurretiko lana ona izan, bidean suertatu daitezkeen arazoak ez dakizkigu. Vaillantek 124 urte daramatza lanean eta Fagorrek ere lan egiteko metodo propioa dauka. Batzuetan, proiektu ezberdinen jestioan edo berrikuntzen diseinuan ikuspegi diferenteak izan daitezke; gure ibilbide propioa aurkitzeak nahiko buruhauste eman digu. Dena dela, 400 langile ditugu, gertuko probedoreekin lan egiteko ohitura daukagu eta beraz Bergaran egotea inguruko guztientzat (zerbitzuak, industriak..., etabar) onuragarria izango da.

**G.** Bategite honetan zer aportatu du bakoitzak?

**E.** Kokaleku egoki bat bilatzen laguntzeaz gain, Fagor beti egon da prest suertatu diren arazoetan laguntzeko eta aholkatzeko.



Meyer bere bulegoan, Merkataritza Ganbarak emandako sariarekin.

Aportazio ekonomikoari begiratuz, %50nakoa izan da. Vaillantek, berriz, Fagorren ez zeuden hainbat konponente jarri ditu. Era berean Vaillantek nazioarteko merkatuan esperientzia handiagoa zeukan.

**G.** Gas bidezko berogailuetan, liderrak izateko helburua daukazue.

**E.** Gure asmoen arabera, datorren urterak 700.000 berogailutik gor egingo ditugu Bergaran Unitateen fabrikazioan lide-rrak izango gara; dena den kostuei eta produktibitatea begiratuz, liderrak izaten iristeko denbora gehiago behar izango dugu. Helburuak markatzea oso inportantea da baina errealistak izan behar dugu eta ibilbide horrek oinarri sendoak iza behar ditu. Hobekuntza etengabean lan egin beha dugu. Oraingoz, moduloka egiten dugun lan antolakuntzak momentuko beharretara egokitzeko aukera ematen digu. Bestalde, udatik aurrera, gure produktuen bariante ezberdinak kaleratzen hasiko gara; merkatuan gure produktuaren 200 bariante izatera iritsiko gara.

***"Helburuak markatzea oso inportantea da baina errealistak izan behar dugu eta ibilbide horrek oinarri sendoak behar ditu"***

**G.** Alemanian eta he-men, lan egiterako orduan bada diferentziarik?

**E.** Erabakiak hartzeko orduan eta erabaki horien aplikazioan Alemanian az-karrago lan egiten dela esango nuke; hemen ezta-baida luzeak izaten dira as-kotan. Dena den, esan be-har dut gure produktibitate helburuak bete egin direla.

**G.** Zela ikusten duzu he-mengo industria egoera?

**E.** Gipuzkoa lan egiteko oso leku ona da duen egitu-ra industrialagatik. Araz-o bakarra zenbaitetan probe-doreen flexibilitatea izaten da; suministro epeak luzeak dira batzuetan. Bestalde, ni-re ustetan injineruek eta tekniko arloko langileek Europako beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutu beharko lituzteke. Egia da Euskal Herrian ga-za asko lortu direla baina mentalidade irekiago bate falta somatzen dut. Eta go-bernuak etorkizunean indu-rra izango duten enpresak bultzatzeko sentsibilitatea izan beharko luke. B

# Uraren gestioari buruzko eztabaida oposizioaren eta alkatearen artean

## Ur Partzuergoari ez ordaintzea eskatzen zuen HBk

**Asteleheneko Plenoan, uraren gestioari buruzko eztabaida izan zen Aitor Aranzabal, HBko zinegotziaren eta Victoriano Gallastegi alkatearen artean. Oposizioak uraren gestioari buruz aurkeztutako mozioa ez zen onartu.**

Bergarako Udalak 100 milioi pezeta ordainduko dizkio aurten Ur Partzuergoari uraren kudeaketarengatik. Horietatik 30 milioi pezeta saneamendu lanetara bideratuko dira. Aitor Aranzabal HBko zinegotziak esan zuenez, "ur errekurtsotan Bergara hain aberatsa izanik lotsagarria da Ur Kontsortzioari hainbeste ordaintzea, geure errekurtsoak alperrik galtzen utziz eta geureak diren errekurtsoengatik ordainduz". Bestalde, Lasarte eta Zumarragaren ondoren, Bergarako uraren tarifa Gipuzkoako garestaiena dela esan zuen (3.320 pezeta hiru hilabetero). Aranzabalek esan zuenez, San Kristobal auzoan eta zenbait baserritan ur arazoak dituzte.

Honen aurrean, HBk zenbait proposamen egin zituen uraren gestioa hobetzeko: herriko urengatik Ur Partzuergoari ez ordaintzea, kontadoreak berrizteko plan bat martxan jartzea, ur sareak dauzkan ihesak konpontzen joatea, herriko etxe guztietara ura kondizioetan eramatea eta uraren erabil-



Kontsortzioak kalitatezko ura eskaintzen duela esan zuen alkateak.

pen arrazionalak bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea.

Alkateak erantzun zion Ur Kontsortzioak kalitatezko ura eskaintzen diola herriari, ur zerbitzuak ondo funtzionatzen duela eta Ur Partzuergoan sartzea herriarentzat onuragarria izan dela; Kontsortzioak ur zerbitzua hobetzeko 32 milioi gastatu dituela gaineratu zuen. Bestalde, udalerrian dauden 6.000 ur kontadoreetatik, Bolun 600 kontadore berri jartzeko egitasmoa duela Udalak adierazi zuen; uraren kuotari buruz, bestalde, aurten kuotarik ez dela igoko esan zuen. Azkenik, orain dela pare bat urte Kontsortzioak "Kaixo ura" izeneko erakusketa ibiltaria antolatu zuela eta erakusketa Bergaran ikusteko aukera izan zela ekarri zuen gogora.

### Abiadura Haundiko Trena Epeletik

Bestalde, Abiadura Haundiko Trenbidearen trazatuari buruz, Epeleko alternatiba onartu zuen Udalbatzak. Angiozarko bailaran Epelen baino baserri gehiago dagoenez eta Mankomunitateak ere Epeleko trazatuaren aldeko apostua egin duenez, aukeratu zuen Udalbatzak Epeleko trazatua. HBk kontrako botua eman zuen Euskal "Y" delakoaren proiektuaren kontra dagoelako.

### San Antonioko ermitari buruzko eztabaida

Erregu eta galderen txandan, bestalde, Kamineroen etxabean egokitu duten behin behineko San Antonioko ermitaren inguruan eztabaidatu zuten Jesus Mari Garitanok (HB) eta alkateak. Ermita egokitzeko Udalak milioi eta erdi pezeta baino gehiago gastatu izana kritikatu zuen Garitanok.

Bestalde, ermita zaharra botatzearen truke, Urteagan egingo diren etxe berrietan Elizari 100 metro karratuko lokala ematea ere kritikatu zuen.

Alkateak erantzun zion auzotarren beharrei erantzuteko, etxe berriak eraiki arte, egokitu dela ermita. Eta etxe berrietan 100 metro karratuko lokala Elizari ematea ere auzotarrek hala eskatu ondoren erabaki zela esan zuen, hasiera batean Elizak indemnizazioa kobratu eta ermita berririk ez egiteko asmoa zuelako. B

**Abiadura Haundiko Trenbidearen trazatua Angiozartik egin beharrean, Epeletik egitea onartu zuen Udalbatzak**



Iraburu eta Aranerreka kaleetan, zati batean, zorua hondatuta dago eta konpontzeko eskatu dute bizilagunek.

# Iraburu eta Aranerrekakoek kalea konpontzeko eskatu dute

## Asfaltu berria botatzeko eskatu dute

**Iraburu** eta Aranerreka kaleko bizilagunek kalea oso hondatuta dutela eta Udalak ahaztuta dituela salatu dute. Santi Bernardo, auzokideen komunitatearen presidenteak BERRIGARAri adierazi dion bezala, Iraburu kalean zorua zuloz beteta dago eta, bestalde, etxe azpiko tuneletan kotxeak aparkatzen dituztenean, edozein ezbehar gertatuz gero, anbulantziek edo suhiltzaileen kamioiek arazoak izaten dituzte bertatik pasatzeko. Bizilagunek eskatzen dutena da tuneletan inork aparkatu ez dezan pibote batzuk jar ditzatela eta zoruan dauden zuloak tapatu eta asfaltu berria bota dezatela.

Santi Bernardoren esanetan, Udaletxean hainbat alditan aurkeztu dituzte idatziak arazoari irtenbideak topatzeko eskatzeko: "Beitia eraikuntza enpresak Bolun egin dituen etxe berriak direla eta, urtebete eta erdi egon gara itxoiten, baina obrak amaitu dituzte eta kalea oso hondatuta laga dute kamioiek. Beitiak diosku ez dela bere lana kalea konpontzea eta Udalak ez digu orain arte erantzunik eman" esan digu.

Santi Bernardo Aranerreka 6tik 24ra arteko atarietako eta Iraburu 8 eta 10 atarietako 84 etxebizitzetako bizilagunen ordezkaria da. B

## Udaletxe atzean adokina jartzeko lanak Aste Santu ostean hasiko dira

San Pedro kalean, Udaletxe atzealdean adokina konpontzeko lanak apirilaren 14an hasiko ditu Amenabar eraikuntza enpresak. Hasiera batean, obrak martxoaren 23an hastekoak baziren ere, Amenabarrek beste obra batzuetan arazoak izan dituela-eta Udalari lanak hasteko epea atzeratzea eskatu dio eta, honenbestez, hamar egun barru hasiko dituzte lanak. Adokina konpontzen 20 egun emango dituzte eta, ondoren, beste 15 egun egon beharko da kalea moztuta zorua ondo asentatu dadin. Beraz, hilabete pasatxoan trafikorako itxita izango da Artekalea; hain zuzen ere, San Pedro parrokiaren ate nagusitik Arrariagako kantoirainoko zatia. Edozein modutan ere, Bergarako jaiak baino lehen kalea trafikorako zabalik izango da.

Udaletxe atzealdean orain dela bi urte jarri zuten adokina, baina arazoak izan dira harriak txoak mugitu egiten direlako. Autoak polikiago ibili daitezen txapa bat jarri zuten udan. B

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala 1

MUJIKA
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 76 20 34

# Gipuzkoako odol emaleek batzarra egingo dute Bergaran

## Apirilaren 26an ospatuko dute odol emaleen eguna

**Gipuzkoako** Odol Emaleen Elkarteak odol emaleen eguna ospatu eta XXXIII. Batzar Nagusia egingo du Bergaran apirilaren 26an.

Bergarako Odol Emaleen Elkartekoak hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun horretarako. Goizeko 11etan harrera egingo zaie odol emaleei eta ondoren, meza nagusia izango da Santa Marinan. Bertan, meza ostean, batzarra egingo da eta 25 eta 50 odol ateraldi izan dituztenei dominak banatuko zaizkie. Eguerdiko 12:30etan Udal Musika Bandaren kontzertua izango da Udal Pilotalekuan eta arratsaldeko 14:30etan, bazkaria kiroldegian; bazkalostean dantzaldia izango da. Bazkarira joan nahi dutenek izena eman behar dute hil honen 20a baino lehen Puy edo Guallar farmazietan, San Antonioko Agirrebeña zapatadendan edo odol emaleen lokalean; bazkariaren prezioa 3.000 pezetakoa da. Auzo Lagunek zerbitzatuko du bazkaria eta 800 bat lagunentzako tokia izango da kiroldegian.



Iaz 1.404 ateraldi egin ziren Bergaran. ARTXIBOA

Bestalde, Bergarako Odol Emaleen Elkarteak bazkide berriak egiteko kanpaina egingo du. B

### Erramu Zapatuko feria dela eta, kale batzuk itxita

**Erramu Zapatuko** feria dela eta, Ibargarai kalean (eskola elementaletik Banco Popularreraino), Telefonikako aldapan eta Iralan ezin izango da aparkatu zapatu goizean; goizeko 7etarako kotxe guztiak kendu beharko dira. Kotxeak ahalik eta gutxien erabiltzea gomendatu dute udaltzainek. B

### Igerilekuak itxita Aste Santuan

**Agorrosingo** igerilekuak itxita egongo dira eguen, eguakitz eta astelehen santu egunetan. B

## Turismo Bulegoa datorren astelehenean zabalduko da

**Azken urteetan** ohizkoa izan den moduan aurten ere Turismo Bulegoa zabalduko da Aste Santuko oporraldiak aprobetxatuz. Bulegoa astelehenetik apirilaren 19ra arte izango da zabalik udaletxean, Udaltzaingoaren parean. Bulegoa egunero zabalduko da goizeko 11:30etatik 14:30ak arte eta, arratsaldez, 16:30etatik 19:30etara. Aste Santuko domeka eta astelehenean goizez bakarrik zabalduko da. Iazko enpresa berak, Nis-ek eramango du aurten ere bulegoaren ardura. Iazko bisitarien artean, katalanak izan ziren gehienak. B

## Caritasentzat batutako dirua lapurtu dute San Pedro parrokian

**Martitzen goizaldean** lapurretan egin zuten San Pedron. Ertzaintzak emandako datuen arabera, honako hau eraman zuten lapurrek: asteburuan batutako dirua, 300 mila pezeta, Caritasendako izan behar zena; bi edo hiru kaliza, horietako bat, urre-kolorekoa eta XVIII. mendekoa; hiru zilarrezko bandeja txiki, musika ekipoa, baskula elektroniko bat, bi patena eta sagrarioko giltza. Lapurreta egiteko ez zuten elizako aterik fortzatu, horregatik Ertzaintzak uste du lapurrak astelehenean sartu eta bertan pasatu zutela gaua. B

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 76 13 35



LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara
Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

# Berrigara

318 zenbakia.
1998ko apirilaren 3a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.



Copyright: BERRIGARA.



Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599



BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

Bergarako Udala — Gipuzkoako Foru Aldundia — Eusko Jaurlaritzako Kultura saila


■ gutunak

**Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

## EZ DA EZER ALDATU

Duela hilabete batzuk ETAk tregoa deklaratu zuen kartzela-frontean; aldi berean, euren militante presoek jasaten dituzten tratu txar eta abusuak amai zitezela eskatu zien politikoei eta guztiak Euskal Herriratzea exijitu zuen. Eskakizun hori ezin da inola ere txantajetzt hartu, konponbidea euren esku dutenek ulertu nahi izan zuten bezala, aitzitik, euren legea bete zedila besterik ez zen eskatu.

Joan dira hilabate batzuk tregoa hau iragarri zenetik; hala ere, kartzeletan ez da ezer aldatu, jipoiak, isolamendua, laguntza mediko eza, egoera txarreko janaria, ikasmaterialaren erretentzioa eta abarrak oraindik ere hor daude. Labur esateko, kartzela araudia ez da inondik inora betetzen.

Senideontzat ez da ezer aldatu, kilometroak egin eta egin jarraitzen dugu. Bizia errepideetan galdu dutenak ere hor dira. Horiek dagoeneko ezin dute funtzionarioekin eztabaidatu mintzaleku hotz, ilun eta zikin baten eta zulatutako txapa bat tartean dutela, presoarekin egoteko berez dagozkien hogei minutuetatik bost kendu dizkielako. Maiz, ehundaka edota milaka kilometroko bidaiak egin ondoren, senidea ikusi gabe itzuli ohi gara, inolako abisu barik beste norabait eroan dutelako. Zenbat eta zenbat estuasun non dagoen ez dakigulako, zenbat eta zenbat bisitaldi galdu ehundaka kilometrora dagoen beste kartzelaren baten aurkitu arte!

Nekatuta gaude, eta ez gara hori esateaz lotsatzen. Baina ez da nekea gelditu eragiten diguna, ez, alderdi politikoak eta instituzioak dira. Urteen joanean erakutsi digute ezin dugula ezer espero haiengandik eta ez daukagu beste inorengana jotzerik.

Lerro hauen bidez, espainiar gobernuak eta Euskadiko aliatuek gure senide presoekin eta geurekin eg[...] ten ari diren bidegabekeri[...] salatu nahi dugu berriro ere.

Euskal presoak Euskal Herrira orain!!!

*Senideak*

***OHARRA***

*Datorren eguakitzean, apirilak 10, ez da Berrigararik kaleratuko Aste Santuko etenaldia dela eta. Beraz, hurrengo Berrigara apirilaren 17an izango duzue zuenean. Bien bitartean, ongi ibili!*

■ tira biraka: **alex ugalde**



atrebentzia ezpada

## Zure seme-alabei lehenengo abizena, aitarenaren ordez, amarena jarriko zenieke?



**Jose Azkarate**

Bi pertsonen artean eztabaidatu beharreko gaia da baina ni, printzipioz, prest egongo nintzateke lehenbizi amaren izena jartzeko. Ez nuke eragozpenik jarriko.



**Enriketa Albizuri**

Bai, duda barik gainera. Amak 9 hilabetez eraman du umea eta hortik aurrera ere berak zaintzen du gehien. Gainera ama zein den beti jakiten da, gizona...



**Emiliano Mendoza**

Emazteak lehenbizi bere abizena jartzeko intentzioa izango balu, onartuko nukeela uste dut. Mentalidade aldaketa da, besterik ez.



**Sole Martinez**

Ez dut gaizki ikusten lehenbizi aitarena joatea; ez zait inporta nire abizena ondoren jartzea. Momentuz ez naiz horretan pentsatzen jarri.



**Josean Iñarra**

Ni orain arte bezala jarraitzearen aldekoa naiz. Betitik aitaren abizena joan da aurretik eta ez dut tradizio hori aldatzeko arrazoirik ikusten.



**Arantzazu Lizarralde**

Pentsatu egin beharko nuke, ez dakit. Egia esan, nire abizena senarrarena baino gehiago gustatzen zait eta jarriko nieke nirea. Baina tradizioak ere tiratzen du...

bai, esan!

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Gorka Sanchez** zuzendu da aste honetan BERRIGARAra kexa bat plazaratzeko. Aurreko eguakitzean Novedades aretoan izan zen "The boxer" filmea ikusten eta emanaldia benetan kaskarra gertatu zela esan digu. Behin baino gehiagotan emanaldia eten egin behar izan zen, eta berak eta bere lagunek azkenerako nahiko umoretxarrez ikusi zuten filmea. Gorkak azaldu digunez ez da lehen aldia eta askotan emanaldietan desenfoke arazoak egoten ei dira.

Zinea merkea ez dela kontutan izanik, Novedadeseko arduradunei bere ikusleekin kontu handiagoz jokatzeko eskatu nahi die Gorkak.

ikuspuntua: **martin garitano**

## *Israel*



HIESak jota hil berri den Israel izeneko mutil koskorraren kasuak, kazetaritza lanetan ari diren baten batzuen etika faltaz gain, gure gaurko gizartearen kultura maillaz ere erreflexionatzeko aukera eman berri digu.

Israel gaztetxoak HIESaren lehen aztarnak zituela-eta, Durangoko ikastetxe batetik kaleratu zuten, orain hamar urte, mende honetako gaitz madarikatuak beste umeengan izan zitekeen eragina ebitatzearren. Gorabehera legal mordo baten ostean, Israel ikastetxean berronartzera behartu zituzten ikastetxeko arduradunak, baina haren gurasoek izena aldatu eta beste ikastetxe batean eskolarizatzea erabaki zuten, gaitzak ikututa zegoen umea, XX. mendeko mendebaldeko gizarteak Erdi Aroko leprosoak bezala baztertu zutela ikusirik.

Hamar urte pasatu dira eta Israel hil da. Hamar urte dira, jada, Erdi Arokoa dirudien XX. mendeko gizarteak Israel hil zuela.

Israel oraindik sendaezina dirudien gaitzak jota hil da, beste asko hiltzen diren bezala, baina haren exenpluak gure gaurko gizartea norainoko inkulturan murgilduta dagoen erakutsi digu.

Bejondeiola, bada, Israel zenari, inkultura horretatik irtetzeko lehenengo pausua ematen lagundu baitigu. Lotsatu daitezela, bada, ezjakintasunez blai blai eginda dauden hainbat inkisidore. Bego lasai Israel. B

asteko menua

# Buztana



BEGOÑA LETURIONDO
*Toki Ona tabernako sukaldaria*

**OSAGAIAK**
**(4 lagunentzat)**

- Kilo eta erdi buztan
- Tipula bat
- Piper berde bat
- Porru bat
- Tomate bat
- Bi azenario
- Irina
- Hiru koilarakada ardo zuri

**PRESTAKETA**

- Tipula, piper berdea, tomatea, azenarioak eta porrua txikitu.
- Olioa zartaginean berotzen jarri.
- Olioa bero dagoenean txikitutako berdura guztiak oliotan, su bajuan, frijitzen jarri, bigundu arte; ondoren, irina bota eta guztia gorritzen laga.
- Ura gehitu saltsa sendotu arte eta, ondoren, ardo zuri txorrostada bat bota.
- Saltsa guztia txinotik pasatu.
- Buztana beste zartagin batean gorritu arte frijitzen ipini.
- Txinotik pasatutako saltsatara buztana bota eta 25 bat minututan sutan eduki.

aditues esanetan

# Euskara eta legea

SABIN ZABALETA, *abokatua*

Azken egunotan polemika piztu da legeak ez dituelako behartzen epaileak euskara jakitera. Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroako hainbat lekutan ez dago arazorik, teorian behintzat, salaketak, eskariak edo tramiteak euskaraz egiteko. Epaitegi batzutan euskal hiztunik ez egotea ere gerta daiteke. Baina legeak ez du esaten euskara derrigor jakin beharra dagoenik eta epaiketa gehienak gazteleraz egiten dira, epaile askok ez dakitelako euskaraz. Hainbat abokatuk hori salatu dute, justizia administrazioan euskararekiko sentsibilitatea aldarrikatuz. Itzulpenaren aukera ere hor dago baina, nahiz eta itzulpen oso onak izan, gehienetan gai teknikoak izaten direnez, beti galtzen da itzulpenarekin eta hainbat jende soluzio horren kontra azaldu da.

Niretako konponbide egokiena piskanaka-piskanaka justizia administrazioa euskalduntzen joatea izango litzateke; gure artean lanean ari diren epaileei sentsibilitate apur bat gehiago eskatuko nieke, euskara minimo bat jakitzeko eta epaiketa aurreko tramite guztiak euskaraz egiten dituztenei euskarazko epaiketa izateko aukera emateko. B

bergarako gordailutik

# KOFRADIA BAT SORTZEKO ERA BEREZIA

**Imanol Sorondo**

Bergarako parrokia bakoitzean lau edo bost Kofradia sortu ziren denborarekin, baina orain esango dugunaren hasiera berezia izan zen. Izurrite haundia zegoen gure herrian eta bere inguruan jaio zen. Asko ziren hildakoak eta beste askok alde egin zuten bere etxeak hutsik utzita. Kutsatzeko beldurrez inork ere ez zuen hiletetara joan nahi, eta senitarteko hurbilenak berak ere nekez prestatzen ziren hildakoak elizara eramatera, hilobiratzera.

Gauzak horrela zeudela ikusirik, herriko biztanleen erdiak baino gehiago batzartu egin ziren San Pedroko elizpean 1507.eko irailean, Zabalatar Juan Perez alkatea, agintariak eta Aroztegitar Gartzia Perez notarioa tartean. Bileran erabili ziren iritziak tankera honetakoak izan ziren: Jainkoaganako zerbitzu txarra, giza maila eskasa eta negargarria, auzokidetasunari egindako kalte haundia, elkarrekiko maitasun eza, gurasoengandik hasi eta seme-alabenganaino haunditzen joan zitekeen kaltea, Jainkoari barkazioa eta laguntza eskatzea.

Asmo horiekin Kofradia bat sortzea erabaki zuten, Sebastian eta Erroke Santuen Kofradia. Hurrengo bileretan araudiak prestatu zituzten, eta Calahorra eta La Calzadako gotzai jaunak 1511. urtean bere oniritzia eta baiezkoa eman zien.

Bitxikeria modura esan dezakegu, lehenengo bileretan batzartutakoen artean, Miguel Jauregi pailazoa (Bufon) eta Juan Mondragon bertsolari eta olerkaria (juglar) azaltzen direla.

1582. urtean Kofradia 363 lagunez osatuta zegoen, horietatik 248 gizonezkoak eta 115 emakumezkoak. B




# Desfile ikusgarria

Pasarela Cibeles edo Salon Gaudi moda eskaparate ospetsuetan izaten diren modeloen pareko maila erakutsi zuten domekan **Miguel Altunako ikasleek** Jam aretoan. Ikusle mordo bat izan zen bertan udaberri-udako tendentziak ezagutzeko eta, era berean, lagun eta ezagunak pasarela gainean ikusteko. **Mikel Almortza** aurkezle lanetan aritu zelarik, 26 ikaslek eta beste bost irakaslek Arrasate eta Bergarako hainbat dendetako jantziak dotoretasunez erakutsi zituzten. Atsedenean **Aitzol Mujika** kantariak hainbat kantu eskeini zituen. Moda desfileak elektriko alorreko ikasleen ikasbidaia eta administratibokoek Reims-eko (Frantzia) ikasleekin egiten duten elkartrukerako sosak batzeko helburua ere bazuen eta ikasleak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin. Era berean, laguntza eman zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.






# Mendi astea

Paraje ikusgarriak ikusi ahal izan dira aste honetan **Mendi Astea**ren barruan antolatutako emanaldietan. Astelehenean kirol marrazkien lehiaketara aurkeztutako lanak eta **Jose Ramon Agirre "Marron"**ek (argazkian) K2-an ateratako argazkiak biltzen zituen **erakusketa** zabaldu zen Pol-Polen (domekara arte izango da zabalik). Kirol marrazkien lehiaketan, 5. mailakoen artean, **Irune Ureta, Garazi Olabarria** eta **Pello Mujika** izan dira sarituak eta 6. mailakoetan, **Pol Lopez de Subijana, Saioa Martinez eta Leire Hernandez**. Era berean, **Maialen Alkortak eta Elisabet Condek** akzesit bana eskuratu dute. Guztira, 155 lan aurkeztu dira. Berrigarako lehiaketan, berriz, **Txaro Garcia** izan da saritua. Bestalde, Peruko Andeak, Pakistan, Aneto edota Monte Perdidoko irudi zoragarriak eskeini dira UNEDen antolatutako emanaldietan. Mendi Asteari amaiera emateko, domekan gaztetxoei zuzendutako mendi irteera egingo da, goizeko 8etan Frontoitik.

# Gure Ametsaren 25. urteurrena

**Gure Ametsa elkartea**k bere sorreraren zilarrezko eztaiak ospatu ditu astebukaeran. Eguakitzean asanblada orokorra izan zen eta zuzendaritza berria aukeratu zen. Aurrerantzean **Agustin Diez** izango da presidentea, **Juan Ignacio Igartua** presidenteordea eta bokalak, berriz, **Jorge Ilzarbe, Luis Jose Intxausti eta Adrian Arreseigor**. Bestalde, zapatuan, **Don Serafin Esnaola**k, **Jesus Igartua**ren laguntzaz, meza eman zuen Kamineruen etxean egokitutako baxu batean. *Ermita berria* jendez gainezka egon zen. Fatimako Amabirjinaren eta San Antonioren bederatziurrenetan meza emango da bertan. Azkenik, zapatuan, 32 bazkide bildu ziren elkartean egindako bazkarian. Gure Ametsak ermitaren errepodukzio bana oparitu zien Don Serafini, Hiru-Bide tabernari eta Fernandez ohialak dendari euren laguntzagatik.








Artekalea 1, BERGARA. Tf. 76 72 00.

# Apirilaren 9an inaugurazioa

17:00etatik 19:30etara

Pintxoak

Eguneko menua

Italiar sukaldaritza

Pizzak

*Etxera eramateko Pizza eta Lasagna!*

Goizeko 9:30etatik zabalik


*Publizitate erreportajea*

# PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturan, euskaran, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baque enpresako Zuzendaria)

**Galdera:** Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

**Emilio:** Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

**G.** Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

**E.** Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

**G.** Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

**E.** Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoa jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué, Cafés BAQUEko Zuzendari Gerentea.

**G.** Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

**E.** Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi eredua.

LARRAITZ ODRIOZOLA

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 14 zenbakia. 1998ko apirilaren 3a.*

## Goizper, 35 urtez etorkizunari begira

### 160 langile ditu gaur egun kooperatiba honek bi produkzio arloetan

**Joan zen eguakitzean, martxoak 27, Gipuzkoako Ganbarak aurtengo enpresa esportatzaile nagusienaren saria eskaini zion Goizper kooperatibari. Hiru aldiz izendatu dute Goizper sari honetarako eta aurten lortu dute saria.**






*Goizperko nekazaritza arloa*

B*urututako enpresa lanaren aintzatespen gisa eta gure komunitate aberastasuna hobetzearren egindako ahaleginagatik* Goizperri eskaini zion Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak urtero banatzen dituen sarietako bat. Jose Luis Arregik, Goizperko komertzial arloko arduradunak, azaldu digunez "sari honek, alde batetik, esportaziora begira hartutako bidea jarraitzea suposatzen du, hori etenik gabeko bidea baita eta, bestetik, bultzada bat ematea guk urte askotan inbertsioari begira egin dugun politikari". Goizperrek fakturatzen duen %60 esportatzen du.

Kooperatibak bi produkzio arlo ditu, Jose Luisek dioenez "produktuak oso ezberdinak direnez, herri gehiagotara heltzea dakar". Nekazaritza arloak, *Matabi* izenez ezagutzen diren hautseztagailuak egiten dituen arloak, besteak beste, Frantzia, Hegoamerika eta Asiaren hegoekialdera esportatzen ditu. Arlo industrialeko enbrageak, balaztak edo frenoak eta lebaz mugitutako biraketa sistemak ordea, Japonia (produkzioaren %35), EEBB eta Alemaniara saltzen dituzte beste batzuen artean.

Jose Luisek adierazi digunez "merkatu berriak lortu ditugu orain, Brasil, India eta Kanada adibidez; guztira 100 estatutara saltzen ditugu gure produktuak".

**Etorkizunari begira**

Inbertsioak epe luzera egin behar direla eta, Goizperrek 2008ra begira lantzen ari den proiektua aurkeztu zuen joan zen astean egin zuen urteko batzar orokorrean. Proiektuaren arabera, nekazaritza arloaren jarraipena izango den pabilioi bat egingo dute. Pabilioiak 85 metro luzeran eta 65 zabaleran izango ditu, guztira 3.500 metro karratu. "Kalkulatzen dugu epe motzean (3-5 urtetan) 35 lagun gehiago sartzeko bidea emango duela". Horrez gain, teknologia eta heziketa zentro bat eratzea ere onartu zuten batzarrean, "produktua hobetzeko eta jendea prestatzeko; honek ere beste 15 lagun izatea suposatuko du. Dagoeneko arduradun bat daukagu eta urtebetean martxan jartzea espero dugu".

*Teknologia eta heziketa zentroa produktua hobetzeko eta jendea prestatzeko izango da*

## Domekan denok Bilbora



**Beñardo Kortabarria**

San Jose zubiko atxiloketak baino lehen erabaki genuen plataformakook iritzi artikulua idaztea, jendeari domeka honetan Bilbora joateko gonbidapena eginez. Hasteko, esan nahi dut kuadrilakoa izan arren, badirela 9 hilabete Pollerua ikusten ez dudala, Patxirekin azkenengoz iaz egon nintzela, eta Eltzikorta bisitatzeko baimenik oraindik ez didatela eman; eta gustora eramango niela Aritz, baina urrun egoteagatik ezinezkoa dela. Euren familiakoek kilometro piloa egiten dituztela idatzi nahi nuen, ia astero joan behar izaten dutela, bidaiaren nekeaz eta arriskuarekin batera hori dirutan mordo ederra dela... estilo horretako artikulua idatzi eta Bilborako gonbidapena egin nahi nuen, uste dudalako presoak Euskal Herrira ekartzeak gatazkaren bukaera bidean aurrera egiten ari garela adieraziko lukeela. Jakina, ahaztu barik etxetik gertu egotea, legez eta humanitatez presoen eta familiarren eskubidea dela.

Orain preso bat gehiago Antzuolan. Horregatik, umore desberdinez baina aurrez genuen asmoari heldu eta sekula baino altuago esan behar dizuet domekan denok Bilbon egotea inportantea dela. Denondako.

*Beñardo Kortabarria, Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako plataformako kidea da.*

# Zorionak Juana 96. urtebetetzean!

**Ardoa, wiskya eta morokila eztiarekin dira bere sekretua. Martxoaren 30ean, San Juan Klimako egunean, 96 urte bete zituen Juana Olabarriak.**

Gaztetan Bilbon kriada aritu zen Juana jatorriz antzuolarra zen familia batekin. "Lehen lana egin behar izaten zan beltz" baina Casillako berbenak ere gogoratzen ditu, nahiz eta orduan "agarraua geizki ikusitta egon". Geroago Bergaran egon zen Aranburu hotelean lanean. Orduan ikasi zuen Juanak leihoetako tapak ixten, "han zeren mutillei begira egoten giñan". Bere etxekoek diotenez oraintxe puntura arte aritu da "bistan gare" eta leihoak ixteko eskatzen.

Ezkondu zenetik, Sallabenten pasatako hamabi urteak izan ezik, Kalebarrenen bizi izan da. Gaur egun drogeria dagoen tokian egoten zen «taxi-astoa». Berba egiten hasten ez ziren haurrak San Bartolomera lehenengo eta gero, ikasten ez bazuten, Elusura eramateko alokatzen zuten asto hori bi banaztarekin.

Lurdesera egindako bidaietan eskailerak belauniko igotzen zituela dauka gogoan "eztakit sasoia izeten zan edo baiña egin egin bihar izaten ziren eta". Loiolako "nobenetan" ere hamaika aldiz egon da, oporretan Azpetian bizi den semearengana joaten zenean. Inoiz ez dela berandu eta Juana bertsotan has da azkenaldi honetan. Etxekoek "ixo" esaten diotenean "han goixan Mixo eta gu hemen gaixo" esaten omen du.

"Gauza ona izengo litzake baiña eztakit pa" esaten duen arren, zerura joatea omen da duen ilusiorik haundiena; hala ere nahiago du berak San Inazio errezatzea "Patxitxo" etorri dadin Gaztelugainera joateko familiarekin bazkaltzera.



*Juana, bilobek erregalatutako* Klimakorekin.

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 72 30 05
Biltegia: 78 70 40

GOROSTi
Taberna
☎ 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 76 64 23




Anderrek lore bat eskaini zion Agurtzaneri

# Agirre garaile Uzarragan

Joan zen domekan egin zen Peña Ayastuik antolatutako 23. Uzarragako igoeran, 188 txirrindularik hartu zuten parte eta Ander Agirre bergararra izan zen garaile. Sumofic taldean aritzen den 16 urteko gazte honek ordubete, 47 minutu eta 33 segundu behar izan zituen Uzarragara heltzeko. Bigarren Juan Ramon Mora (Ciclos Iñigo) iritsi zen, 4 segundura eta hirugarren, berriz, Kaiku taldean dabilen Iñaki Goiburu, bederatzi segundura.

Herriko txirrindulariek karrerak lagatzea erabaki zutenetik, ez dabil errepidean herria ordezkatzen duen antzuolarrik. Frogaren antolatzaileetako batek adierazi digunez "ez dago antzuolarrik aurten. Beste kirol batzuetan aritzea nahiago dute, bizikleta kirol gogorra da eta".

**Agurtzane, sari emailea**

Agurtzane Mujika izan zen Anderri saria eskaini ziona. Iaz, Aintzaneren ahizpa aritu zen sari banaketan, baina amaren ustez, Aintzaneren txanda zen aurten eta berari tokatu zitzaion kopa eta bi muxuak ematea irabazleari.

## Ederra giroa!

Jende ugari bildu zen zapatuan Skalariak eta Anawak taldeek Gaztetxean eskaini zuten kontzertuan. Aspaldiko partez Gaztetxea betebete eginda egon zen. Gainera, dekorazio berria ere ikusteko moduan izan zen.




### Gazinema

*Romeo eta Julieta* filmea eskainiko dute Gazinemakoek datorren domekan, apirilaren 5ean, 16:30etan eta apirilaren 8an, eguaztena, *Trainspotting* ikusteko aukera izango da 22:00etan. Apirilaren 17an, eguakitza, *La sombra del diablo* filmea emango dute 22:00etan. *Operación elefante* eskainiko dute apirilaren 19an, domeka, 16:30etan.

### Etxeko lanak trukatzeko ikastaroa

Emakumeei zuzenduta, brikolajea, pintura eta automobilen mekanikari buruzko ikastaroa antolatu du Udalak, Emakunderen laguntzarekin, apirilaren 21etik ekainaren 4ra arte (martitzen eta eguenetan). Izena ematea udaletxean, apirilaren 14a baino lehen.

### Areto dantzen ikastaroa

Maiatzeko lau zapatuetan, 9, 16, 23 eta 30, areto dantzen ikastaroa eskainiko dute Maria eta Mikel Kokak 16:00etatik 19:00etara. Balsa, tangoa, rocka edo antzekoak ikasteko udal liburutegian eta udaletxean eman beharko da izena apirilaren 24a baino lehen, 5.000 PTAn.

### Kruzeta Orixol

Gaztetxoen eskolarteko kirol lehiaketarako baliagarria den hurrengo mendi irteera, apirilaren 19an izango da Kruzetatik Orixoleraino.

### Patxiko Txerren

Udal liburutegiak antolatutako "Patxiko Txerren" literatur lehiaketan parte hartzeko azken eguna apirilaren 16a izango da. "Patxiko Txerren Txiki" ipuingintzarako epea, berriz, apirilaren 21a.






Purita Zabalorekin berriketan

# Prozesioak, galdutako ohituren artean

**Don Jose Maria apaiza zegoenetik egiten ez badira ere, Antzuolan Aste Santuan egiten ziren prozesioak izugarrizko ikuskizuna izaten ziren. Erramu Domekatik Gloria Zapatura arteko ospakizunak egiten ziren.**



Z**ela ospatzen zenuten Aste Santua?**

Erramu Domekan hasten zan Aste Santua; goizian erramuen bedeinkaziñua egitten zan eliza barruan eta arratsaldian, Antiguatik Nazarenua eta Ama Doloretakua ekartzen zian elizara, eta kalbaixua hasten zan, oingo guruzbidia.

**Zer egiten zan "kalbarixuaren" prozesio horretan?**

Antiguaraiño zeren hamalau kurutzetan belauniko ipintzen giñan –zenbat galtza apurtu ete giñuan guk–, Jesusen pasiñua esanaz. "Jesus, agur Jaun maite, amodiozkua. Damu degu guztiok, damu degu guztiok zu nahigabetua" kantatzen zan kurutza bakoitzetik bestera. Eguenian gloria kantatzen zan elizan eta kanpaiak mututzen zian Gloria Zapatura arte, berriz gloria kantau arte.

**Zeintzuk hartzen zuten parte prozesioetan?**

Eguen Santuan Izara santua, San Juan, Madalenia, Hortu santua eta Ama Doloretakuakin juten zan Antiguaraiño. Han egoten ziran nazareno txikixak –mutikuak tunika morauekin jantzitta–. Buruan larrekin egindako koroe bat ipintzen zeben eta kurutza bat hartuta oinutsik juten ziran nazarenuan atzetik. Santuak eruaten zittuenak tunika beltzekin juten ziran. Tunikak eta atxak –kandela haundixak–, gurasotatikan semeetara pasatzen juten ziren. Gurian aittak zeukan Ama Doloretakua baiña gero Kristua eruaten hasi zan eta Ama Doloretakua semen bati laga zotsan. Bazeren auzoka hartzen ziren santuak pe; San Juan, Uzarragako jendiak eruaten zeban.

**Agintariek ere parte hartzen zuten**

Eguenian Jauna sagrarixuan sartzen zanian, giltziakin ixten zan eta alkatiai ipintzen jakon lepotik. Kartzelako giltzia eukitzia bezela izeten zan. Eguakitzian giltzia kentzen zotsan eta sagrarixua zabalik gelditzen zan.

**Eguen Santua izaten zen antzuolarren egunik luzeena.**

Geu oso gutxi juten giñan baiña gabian izeten ziran tinieblak. Illuntze aldera hasten zan eta kantau egitten zan dana latiñez. Bankuekin koruan etaratzen ziren zaratak, horrek ziren tinieblak. Gazteik eztot uste asko juten zanik. Oso luzia izeten zan eta aspertuta egoten giñan ordurako.

**Baina ez ziren horrekin bukatzen egun horretako otoitz eta betebeharrak**

Eguen arratsaldian preso sartzen zebenetikan eguakitz atsaldian atzera etaratzen zeben arte izeten zan belauñua. Gizakumiak eta emakumiak egoten ziran baiña gabian, bakarrik gizakumiak. Gaiñera Antiguan, Maristetan eta plazan ipintzen ziren kurutzak adoratzen ibiltzen zan jendia. Beste prozesiño bat bezela izeten zan. Kurutzia adorau barik etzan geratuko iñor eguenetikan eguakitz atsaldera arte.

*"Jesus, agur Jaun maite, amodiozkua. Damu degu guztiok zu nahigabetua"*



*Elizan gordetzen dira prozesioetako santu guztiak*

TXOMIN garajea
Mekanika orokorra
Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

GAILUR taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

LARREA TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Sagarpek urrezko eztaiak

## Bazkide sortzaileei omenaldia zapatuan



**Sagarpe elkarteak bere sorreraren urrezko eztaiak ospatzen ditu egunotan. Asteazkenean ospakizun ekitaldiei hasiera eman zitzaien eta bihar zapatua bizirik diren bazkide fundatzaileei omenaldia egingo zaie elkartean bertan. 1948 hartan herriko elkarterik ezagunenetakoa martxan jarri zutenetatik, lau lagun iritsi dira urrezko eztaiak ospatzera.**

Herriko hainbat koadrila Azpilletak Artekalean zuen sagardotegian biltzen hasi ziren 1940ko hamarkadaren amaieran. Elkarteak, hain zuzen, sagardotegiari zor dio Sagarpe izena. Martin Guridik (87 urte) eta Markos Larrañagak (88 urte) gogoratzen duten moduan, "orduan 44 la-

Goiko argazkian, Markos Larrañaga eta Martin Guridi, Sagarpeko ikurriña eskutan dutela. Markosek elkarteko sarreran dagoen errotuloa egin zuen eta Martinek berak dirua jasotzeko egurrez egindako buzoia.

gun ginen elkartean, koadrila ezberdinetakoak eta soziedadea elkarte musiko-kultural modura ireki zen, guztiok jarritako diruarekin eta orduan beharrezkoa zen Gobernu Zibilaren baimenarekin. Elkartearen sorrerako urtean, ekainean, beste 12 lagunek eman zuten bazkide izateko izena". Sagarpe 1948an



sortutakoa bada ere, estatutuak 1949ko azaroaren 4an onartu ziren. Elkarteko lehen presidentea Claudio Aiastui izan zen eta berarekin batera Juan Irizar (presidenteordea), Donato Gallastegi (idazkaria), Jose Mari Gallastegi (diruzaina) eta Felix Iñarra eta Joakin Mujika (bokalak) izan ziren zuzendaritza batzordean. Bazkide fundatzaile haietatik lau bizi dira oraindik: goian aipatutako Martin Guridi eta Markos Larrañaga, Dionisio Bolibar eta Bixente Garitano. Bihar arratsaldean, laurek merezitako omenaldia jasoko dute elkartean bertan eta orain dela gutxi hil den Pedro Otxoaren familiak ere plaka oroigarria jasoko du.

### Koadrila ugari

Sagarpe Artekaleko sagardotegian kokatuta egon zen 1953ko azaroan oraingo lokalera pasatu zen arte. Orduan zalditegiak zeuden bertan eta inguruan ortuak ziren. Lokala oraindik ere alokatuta dauka Sagarpek. Guridik eta Larrañagak Sagarpera sartu eta eskuinean dagoen lehendabiziko mahaian lagunekin biltzeko ohitura zeukaten: "orduan egunero etortzen ginen soziedadera, lanetik irtendakoan eta afal ordurarte bertan geratzen ginen, berriketan eta ardo bat edo beste hartuz. Kartetan oso gutxi, berriketan gehiago. Hasieran sei lagun ginen: Santi Azpilleta, Doroteo Beistegi, Bixente Garitano, Felix Bilbao eta gu biok. Geroxeago Juanito Irizar, Hipolito Mujika eta Santiago Berasategi gehitu zitzaizkigun. Hori bai, politika eta elizako gaiak ez ziren ikutzen. Sasoi hartan egunero mahai guztiak beteta izaten ziren eta koadrila bakoitzak berea zuen".

Emakumeek, berriz, murriztuta zuten elkarterako sarrera. Guridiren arabera, "orduan Pazkuetan eta San Martzial egunean bakarrik etortzen ziren baina ohitura hori laster galtzen joan zen eta emakumeen presentzia *normalizatzen* joan zen piskanaka-piskanaka". Elkarteko egunik handienak Aberri Eguna, Pazkuak eta Gabonak izan dira beti: "Gabon egunean elkartea jendez gainezka egoten zen garai batean eta Umore Ona elkartekoekin elkartrukea egiten genuen; beraiek Ganbon egunean etortzen ziren kantura eta gu berriz Gabonzahar egunean joaten ginen bertara. Oso giro berezia izaten zen Gabonetan; Pako Basarrik bertsoak bota ohi zituen eta jendeak azkeneko leloa kantatzen zuen, intxaurrak, pikuak eta ogia pikatzen zuen bitartean. Marcial Garitano "Txara"k ere kantatzen zuen... Elkartean abesteko ohitura galduz joan da, nahiz eta Umore Onakoek abesteko afizioa oraindik mantendu". Arrazoietako bat Umore Onako bazkide sortzaileak Sagarpekoak baino hamar bat urte gazteagoak izatea izan daiteke.

### Ekitaldiak antolatu

Garai batean Orfeoiko kideak ere entsaiuen ostean Sagarpera joaten ziren. Guridik azaldu digunez, "elkarteak musikarekin zerikusia zuten gauzak edota pilota partiduak antolatzen zituen eta Orfeoikoak sarritan etortze ziren; badakizu, ardo botila batzuk ta tean direnean, hobeto kantatzen d eta... Sagarpek herriko bizitzan par hartze handia zeukan, herriko beste e karte batzuekin gertatzen zen modua Pazkuetarako pregoia eta estanpa prestatzen ziren, San Martinetarak erregina aukeratzen zen eta ahalik e ekitaldi gehienetan kolaboratzeko je dea prest zegoen beti.

**Herriko hainbat koadrila Artekaleko Azpilletaren sagardotegian biltzen hasi ziren, hortik Sagarpe izena. Gaur egun elkarteak 130 bazkide ditu**

Sagarpe ez zen izan kalean egite zen lehen elkartea. Gure datuak ok ez badaude elkarterik zaharrena Pik pe da. Martin Guridik hori konfirma tzen du eta umorez eta aurpegi maltz rrez zera esaten du: "baina hango beste maila batekoak ziren; *"caball ro"*ak ziren haiek eta gu, berriz, pobr ak euren ondoan...". Hala ere, pobre izanik, bergarar eta kanpotar mord bat izan da Sagarpen ondo edan e hobeto jan dutenak. Asko eta asko iz dira lehen sukaldari lanak elkartea egin dituztenak eta 50 urteotan nab mendu diren sukaldarien artean, Tx min Ugarte, Juan Jose Arrieta edota J se Gorrotxategi aipatzen dituzte Ma kosek eta Martinek.

Primerako sukaldariak izanik *mensalak* ez dira makalak izan. Izen aipatu nahi izan gabe, elkartean prim ran afaldu, artean errepikatu eta g etxean ere porrupatatak afaltzen zit nik ere bazegoela esan digu Markos L rrañagak. Edan ere ederto egiten z Larrañagak anekdota bat gogoratz du: "Donato Gallastegi presidente z zapatarien egunean, ni etorri nintze

rako hiru lagunen artean zortzi botila edanda zituzten. Beraiekin jarri eta 13.a zabaltzera ere iritsi ginen. Hara non datorren Donato eta esaten digu: horrek denak edan dituzue? Guk baietz. Eta berak: beste bat edango duzue, ba... eta guk ateratzeko. Ah, baina denak balantzaka egin barik etxera bueltan, eh?". Martin Guridiren arabera, "soziedadeko ardoak min gutxiago egiten du. Txikiteoan hastekotan tabernaz taberna aldatu egiten dizute eta orduan bai dagoela gaizki amaitzeko arriskua...". Kontuak kontu, zenbaitetan ohi baino beranduago etxeratzen ziren lagunak eta behin batean Etxenagusi parean elkar agurtzean, onartutakoa baino zarata handiagoa egin eta emakume batek balkoira irtenda zera esan omen zien: *"El hombre cantonero, mal paradero"*. Eta mingain azkarra zuen Markosen lagun batek zera erantzun: *"La mujer ventanera, mala hilandera"*.

### Langostak margotu eta jan

Berrogeitamar urte igaro dira jadanik eta gauzak asko aldatu dira. Guridik esaten digunez, "tokatu zait niri astean pareko kaletik pasa eta hiruzpalau egunetan argirik ez egotea. Orain jendea askoz ere gutxiago dator, zapatu eta barikutan bakarrik ia. Ez dakit denbora gutxiago dutelako ala ohiturak aldatzen joan direlako". Hala ere bai berari eta bai Markosi ere ilusio handia egiten die soziedadeak lehendabiziko 50 urteak betetzeak.

Elkarteko paretetan zintzilikatuta daude oraindik Simon Arrieta, Miguel Okina, Martin Narbaiza edota Cristobal margolarien koadroak. Pintura horiek eta orain arriskuan dagoen parrapea (Udalak Domingo Irala kalea urbanizatzeko kentzeko asmoa dauka) Sagarpeko marka adierazgarriak dira. Simon Arrietaren koadro batean azaltzen diren langosten inguruan ere bada leienda bat, Guridik berak kontatzen diguna: "koadro hori hiru ordutan bakarrik egin zuen Simonek, itxura langostak jateko presa handia zeukan eta...". Cristobal G.k sinatutakoa, berriz, San Pedroko elizan lanean izan zen Madrileko El Prado museoko arte berriztatzaile batek oparitutakoa da eta adituen ustez amaitzeke dago oraindik. J. Montero izeneko bisitari batek idatzitako bertso batzuk ere enmarkatuta eta toki onean gordeta daude. Estrofa batek honela dio: *"somos vascos, de palabra corta y alma generosa, el espiritu abierto a la alegria..."*. Urte askotarako!! B

**_1948an Sagarpe martxan jarri zuten 44 lagunetatik 4 besterik ez dira iritsi urrezko eztaiak ospatzera. Elkarteak omenaldia eskainiko die zapatuan_**

## Ospakizun ekitaldiak astebukaeran

Bazkide beteranoenak bat datoz elkartearen garairik onena 1960 eta 1970eko hamarkaden tarte horretan kokatzean. Hala ere elkarteak gaur egun sekula baino bazkide gehiago ditu: 130. 1973tik aurrera eta, zeuden eskaerei erantzun nahirik, bazkide kopurua handitzea erabaki zuen orduko zuzendaritzak. Garai hartan jende askok izena emana zuen bazkide egin ahal izateko zerrendan eta oso zaila omen zen elkartean sartzea.

Gaur egun bajaren bat suertatzen denean, jubilazioagatik edota bazkideren bat hiltzen denean libre geratzen den plaza eskuratzeko aukera dago. Bazkide berriek 113.500 pezetako sarrera ordaindu beharra daukate (bazkide eskubidea gurasoengandik seme-alabengana pasatzekotan ez da ezer ordaintzen) eta, horrez gain, hileroko kuota 2.000 pezetako da. Elkarteak 20 bat presidente ezagutu ditu (bat baino gehiagori kargua errepikatzea tokatu zaio). Sagarperen urrezko eztaiak ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan bihar zapatua 19:00etan bazkide fundatzaileei omenaldia eskeiniko zaie eta jarraian Aritzeta abesbatzaren emanaldia izango da Sagarpen. Domekan, berriz, 11:30etan meza izango da Santa Marinan, jarraian trikitilariek alaitutako txikiteoa eta amaitzeko anaiarteko bazkaria Antxonin.



1970ko hamarkadaren hasieran ateratako argazkian, ezkerretik eskumara: Alberto Lonbide, Doroteo Beistegi, Felix Bilbao (bizkarra ematen), Hipolito Mujika, Santi Berasategi eta Martin Guridi.

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**ZAPATUAN BARRUAN. KOPA**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Bildurbarek Opel/Lam-Amilotx | **FAC** |
| **10:30:** FAC-Aldoka Mldok | **Bildurbarek** |

**ZAPATUAN KANPOAN. KOPA**

| | |
|---|---|
| **16:00:** Ezinleike-Eri Sirimiri | **La Juve** |
| **17:00:** La Juve -Igandekoak | **Eri Sirimiri** |
| **18:00:** Komando Piperrak-Nekrofilikos | **La Juve** |
| **19:00:** La Peña DML-MRW | **Nekrofilikos** |

**DOMEKAN BARRUAN. PLAY OFFak**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Txipiron-Mongatxurrak | **A Ze Flaxa** |
| **10:30:** A Ze Flaxa-Usoa | **Mongatxurrak** |
| **16:00:** Jauja OH Zerezos-Shaktale | **Etxagi** |
| **17:00:** Etxagi-Artusamak | **OH Zerezos** |
| **18:00:** Bar Canalejas-Autoberezi | **Errotagain** |
| **19:00:** Errotagain-Guadalest | **Canalejas** |
| **20:00:** Azpeitxi Jatetxea-Manitou | **Guadalest** |

**DOMEKAN KANPOAN. KOPA**

| | |
|---|---|
| **10:30:** Ganbara Ari Ari-Jakina PT | **Pagomendi** |
| **11:30:** Pagomendi-Uve Bikoitza | **Ari Ari** |
| **12:30:** Polideportivo Taberna-Agiñaspi | **Uve Bikoitza** |
| **16:00:** Ortzi-Bayer | **Agirrebeña** |
| **17:00:** Moskis-Agirrebeña Jatetxea | **Ortzi** |
| **18:00:** Etengabe-Gazteak | **Moskis** |

## argi!

**Kopa: bost talde zuzenean bigarren kanporaketan**
Indargorri, Amozkibar, SLO, Matxakategi eta Ufala taldeak Kopako txapelketako lehen kanporaketa ez dute jokatuko eta bigarren kanporaketa jokatzeko zuzenean sailkatu dira.

## jokoz kanpo



**Karlos Poza**
AGIRREBEÑA
JATETXEA

**G.** Zer moduz zabiltzate?
**E.** Gaizki. Bigarren mailako erdialdean.
**G.** Zelan amaitzea espero duzue?
**E.** Erdialdean. Zortzigarren edo bederatzigarren.
**G.** Zer nolako maila dago?
**E.** Normala. Ia denok antzera gabiltza.
**G.** Kopan zerbait egiteko aukerarik?
**E.** Kanporaketaren bat edo gainditukodugu.
**G.** Txapelketako talderik onena?
**E.** Mongatxurrak.
**G.** Eta jokalaririk onena?
**E.** Manitouko Juantxo.
**G.** Zure taldeko gauzarik onena?
**E.** Giroa.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Defentsan.
**G.** Golik sartu al duzu?
**E.** Bai, hiru.
**G.** Gehiago sartzeko asmotan?
**E.** Itxaropena behintzat bai.
**G.** Nork irabaziko du liga?
**E.** Bartzelonak.
**G.** Eta mundiala?
**E.** Frantziak edo Brasilek.
**G.** Ligako jokalaririk onena?
**E.** Luis Enrique.
**G.** Reala Uefan sailkatuko da?
**E.** Jakina baietz.

## gora eta behera

**Lau mailetako talderik onenak**
Txapelketan zehar bikain ibili direnak, talde onena erabakitzeko play-offa jokatuko dute. Lehen mailatik, lehen zortzi taldeak izango dira. Bigarrenetik, lehen laurak eta hirugarren eta laugarren mailetatik bi lehenak. Bigarren mailako lehen bi taldeak, bestalde, zuzenean igoko dira lehen mailara.

**Mailaz jaisteko arriskuan**
Lehen mailan 9 eta 10. postuetan geratu direnak promozioa jokatu beharko dute bigarren mailan 3. eta 4. postuetan geratu direnen aurka. Azken biak, berriz, zuzenean jaitsiko dira bigarren mailara.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| Jauja OH Zerezos-Bar Canalejas | [illegible] |
| Ortzi-Mongatxurrak | [illegible] |
| Bildurbarek Opel/Lam-Arloteak/Oilagorra | [illegible] |
| Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi | [illegible] |
| Bildurbarek Opel/Lam-Agiñaspi | [illegible] |
| Agiñaspi-Etxagi | [illegible] |
| A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain | [illegible] |
| Amozkibar-FAC | [illegible] |
| Bayer-Ezinleike | [illegible] |
| Manitou-SLO | [illegible] |
| Guadalest-La Juve | [illegible] |
| Artusamak-Shaktale | [illegible] |
| Agirrebeña Jatetxea-Ufala | [illegible] |
| Ganbara Nekrofilikos-Autoberezi | [illegible] |
| Komando Piperrak-MRW | [illegible] |
| Indargorri-Eri Sirimiri | [illegible] |
| Uve Bikoitza-Jakina Patxaran Team | [illegible] |
| Matxakategi-Aldoka Maldoka | [illegible] |
| Amilotx-Usoa | [illegible] |
| Patatus-Igandekoak | [illegible] |
| Polideportivo Taberna-La Peña DML | [illegible] |
| Erdibiterrak-Txipiron | [illegible] |

## sailkapenak

### Lehen maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | A Ze Flaxa Etxagi | 49 | 22 |
| 2. | Mongatxurrak | 44 | 22 |
| 3. | Pagomendi | 39 | 22 |
| 4. | Bar Canalejas | 39 | 22 |
| 5. | Errotagain | 35 | 22 |
| 6. | Etxagi | 33 | 22 |
| 7. | Jauja OH Zerezos | 33 | 22 |
| 8. | Azpeitxi Jatetxea | 30 | 22 |
| 9. | Bildurbarek Opel/Lam | 30 | 22 |
| 10. | Ortzi | 22 | 22 |
| 11. | Agiñaspi | 15 | 22 |
| 12. | Arloteak/Oilagorra | 7 | 22 |

### Bigarren maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Manitou | 33 | 11 |
| 2. | Shaktale | 26 | 11 |
| 3. | Artusamak | 21 | 11 |
| 4. | Guadalest | 18 | 11 |
| 5. | FAC | 18 | 11 |
| 6. | Bayer | 18 | 11 |
| 7. | Agirrebeña Jatetxea | 13 | 11 |
| 8. | SLO | 12 | 11 |
| 9. | La Juve | 7 | 11 |
| 10. | Ufala | 5 | 11 |
| 11. | Amozkibar | 5 | 11 |
| 12. | Ezinleike | 3 | 11 |

### Hirugarren maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Autoberezi | 24 | 10 |
| 2. | Uve Bikoitza | 18 | 10 |
| 3. | Moskis | 16 | 10 |
| 4. | Jakina Patxaran Team | 16 | 10 |
| 5. | MRW | 16 | 10 |
| 6. | Ganbara Nekrofilikos | 15 | 10 |
| 7. | Matxakategi | 12 | 10 |
| 8. | Eri Sirimiri | 12 | 10 |
| 9. | Indargorri | 10 | 10 |
| 10. | Komando Piperrak | 9 | 10 |
| 11. | Aldoka Maldoka | 6 | 10 |

### Laugarren maila

| | | P |
|---|---|---|
| 1. | Txipiron | 24 |
| 2. | Usoa | 22 |
| 3. | Ganbara Ari Ari | 21 |
| 4. | Etengabe | 18 |
| 5. | Polideportivo Taberna | 16 |
| 6. | Amilotx | 15 |
| 7. | Igandekoak | 14 |
| 8. | La Peña DML | 13 |
| 9. | Erdibiterrak | 12 |
| 10. | Gazteak | 3 |
| 11. | Patatus | -2 |

# ESKOLA KIROLA

## IKUSI ETA IKASI

**FUTBOLA:**

**Alboko sakea**

Alboko marraren atzetik eta zelaitik irten den leku beretik baloia eskuez jaurtitzen da, azkenekoz baloia ukitu duen ekipoa ez den jokalari batek egina.



## TXINPARTAK

**Aranzadiko bi talde saskibaloian txapeldun**

Saskibaloian, infantil eta alebin mailako Aranzadi eta Aranzadi 10 taldeek, Deba Garaiko txapelketan garaipena lortu zuten. Aste bukaera honetan, Elgoibarren aurka kanporaketa bat jokatuko dute. Kanporaketa irabaziz gero, Gipuzkoako finalean izango dira.

**Alebin mailako atletismo frogak**

Zapatuan, Deba Garaiko Atletismoko bigarren jardunaldia izango da Bergaran. Lehena Arrasaten izan zen. Aranzadi 10, Aranzadi 12, Mariaren Lagundia B eta Aranzadi 14 taldeek hartuko dute parte. Talde onena Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko da. Zorte on guztioi!



## Aranzadi 12 alebinak

Aranzadi 12 alebin mailako taldea Jon Kapelastegi, Ibon Leibar, Iker Arregi, Josu Agirre, Pol Lopez de Subijana, Gorka Ugalde, Iker Igarza, Julen Muguruza, Joseba Sasigain, Markel Agirre eta Josu Zabaletak osatzen dute.

Futbolean, pilotan, eskubaloian eta saskibaloian jardun dute. Ez dute txapelketarik irabazi, baina oso ondo pasatzen dutela adierazi digute. Saskibaloian jokaldi berri bat asmatu dute eta "katapulta infernal" izena jarri diote. Jokaldi horrekin Europako txapeldunen ligarako sailkatzeko asmoa ei dute gainera.



## Aranzadi 14 alebinak

Aranzadi 14 alebin mailako taldea Oihane Larrañaga, Ainhoa Gimenez, Maite Bolibar, Naroa Bernardo, Maite Aristegi, Idoia Igartua, Garazi Olabarria eta Maite Irazabalbeitiak osatzen dute.

Futbola da gehien gustatzen zaien kirola eta Realzaleak dira. Jokalari bat aukeratzekotan Idiakez, Craioveanu eta De Pedro aukeratuko lukete. Gainera Realak liga irabaziko duela diote. Nahiago dute kirola egitea eskolara joatea baino eta zapatu goizetan ez zaie jaikitzea kostatzen.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**
Zapatuan, Agorrosinen.
**Infantilak / Mutilak**
**08:45:** Ipintza-Aranzadi.
**10:15:** M Lagundia-Almen.
**11:30:** Aranzadi-Elgeta.

**ATLETISMOA**
Zapatuan, Agorrosinen, 9:30etan.
**Alebinak / Mutilak**
Aranzadi 7, Aranzadi 12, M Lagundia B.
**Alebinak / Neskak**
Aranzadi 14.

**ARETO FUTBOLA**
Zapatuan, M. Altunan.
**Kadeteak**
**12:00:** Aranzadi 202-Los Chicos de Altuna.
**12:00:** Aranzadi 201-M Lagundia.

**PIRAGUISMOA**
Zapatuan, Agorrosin igerilekuetan.
**Alebinak**
**09:30:** San Martin.
**10:30:** Antzuola.
**11:30:** Aranzadi 13.
**12:30:** Aranzadi 9, Aranzadi 11.

**BADMINTON**
Zapatuan, Ipintza institutuan.
**11:00:** 5. mailakoak.
**12:00:** 6. mailakoak.

**PILOTA**
**Benjaminak**
Zapatuan, Udal Pilotalekuan.
**09:45:** Aranzadi 1, Aranzadi 3, M Lagundia B.
**10:45:** Aranzadi 6, Aranzadi 4, Elgeta.
**11:30:** Aranzadi 2, M Lagundia A.
**12:15:** Aranzadi 5, San Martin.
**Alebinak**
Antzuolako pilotalekuan. Bergaratik autobusa15:15etan Pilotalekutik.
**Infantilak**
**Deba bailarako txapelketa.**
Zabalotegiko Pilotalekuan, 15:30.
Elgeta-Aranzadi.
M Lagundia-Aranzadi.
Eibar-Antzuola.

## Futbola

BKEko futbol taldede nagusiak irabazi egin zion Aloña Mendi taldeari (5-0). Lehen gola zazpigarren minutuan etorri zen. Errasti, Mikel Osoro eta Gorka Davila izan ziren golegileak. Nietoren mutilek lehen postuan jarraitzen dute. Asteburu honetan Seguraren aurkako partidua irabazten badute, txapeldun geratuko dira. Ea jendea Segurara urbiltzen den.

Jubenilak larri ibili arren partidua aurrera atera zuten (5- 3). Bigarren mailako jubenilak ere (6-2) irabazi egin zioten liderrari. Une honetan, puntutan parekatuta daude. Lehen eta bigarren mailako kadeteak, irabazle atera ziren. Infantilak ere ez ziren gutxiago izan. Neskak bestalde, galdu egin zuten Zumaian.

## Eskubaloia

Iraundi BKE eskubaloi taldeak ez zuten zorte handirik izan. Gipuzkoa Kopako lehen partidua jokatu zuten Elgoibarren aurka (21-25) galduz. Lehen zatian elgoibartarrek ez zuten diferentzia handirik lortu baina bigarren zatiko azken hamar minutuetan bergararrek ezin izan zuten aurkariaren kontraerasoa eutsi. Gol faltan ibili ez arren, Lijoren mutilek ez zuten partidu ona egin. Zoritxarrez, oraindik zigortuta eta lesionatuta daudenak ez daude jokatzeko moduan.

Bestalde, Josetxoren mutilek atsedena izan zuten eta kadete mailako neskak eta mutilak irabazi egin zuten. Neskek, azken minutuan lortu zuten garaipena. Bi talde taldeak bigarren postuan sailkatuta daude.

## Saskibaloia

Bolsos Bergara BKEeko saskibaloi taldeak galdu egin zuen joan zen astean. Partidu osoan zehar indarrak parekatuta egon arren, azken zazpizortzi minutuetan arriskatu egin zuten baina gauzak ez zitzaizkien ondo atera. Bosgarren postuan jarraitzen dute beste hiru talderekin. Jubenil mailakoek, bestalde, larri ibili arren luzapenean garaipena lortu zuten.

Neskek eta kadeteek, berriz, ez zuten zorterik izan, galdu egin baitzuten Donostian. Kadete mailako mutilek, partidu garrantzitsua izango dute astebukaera honetan, azpeitiarrei hamar puntuz irabaziz gero, laugarren postuan sailkatuko lirateke eta mailaz igotzeko aukera zabalik izango luke te.

## IKER MURUAMENDIARAZ / Pilotaria

## "Finala gogorra izango dela uste dut"

**Iker Muruamendiaraz, 20 urteko pilotariak, Senior mailako Gipuzkoako finala jokatuko du gaur Udal Pilotalekuan, Unai Idiakezekin batera, Errasti aretxabaletar anaien kontra.**

**G.** Nola ikusten duzu finala?
**E.** Askotan jokatu dugu elkarren aurka eta nahiko gogorra izango dela uste dut.
**G.** Zela jokatzen dute?
**E.** Partidua eustera joango dira. Normalean ez dute asko arriskatzen.
**G.** Taktika berezirik erabiliko duzue?
**E.** Nagusiki atzealdean jokatuko dutela uste dut. Atzealdea eutsi eta aurrekaldean egin beharko ditugu tantoak.
**G.** Zer izango da partiduko gauzarik zailena?
**E.** Haserako tantoak egitea.
**G.** Zaila izan al da finalera heltzea?
**E.** Gipuzkoako ligan bigarren sailkatu ondoren, bi taldetan banatzen zen liga bat jokatu genuen. Finalerdia jokatzea gogorra izan zen baina zorionez, finalean gaude.
**G.** Jendea joatea espero duzue?
**E.** Azken aldian afizioa handitu egin da eta Bergaran denez jendea animatuko dela uste dut.
**G.** Finala eta ondoren?
**E.** Igor Gutierrezekin Deba bailarako finala jokatuko dut.
**G.** Pelotaririk gustokoena?
**E.** Jokin Etxaniz.
**G.** Zenbat urterekin hasi zinen?
**E.** Hamar urte nituenean.
**G.** Beste kirolik praktikatzen duzu?
**E.** Ez.
**G.** Zein da zure helburua pilotan?
**E.** Nire ametsetariko bat, profesionaletara heltzea da.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**
**Bergara-Tolosa**
Infantilak.
Zapatua. 16:30. Ipintza.
**Bergara-Aloña Mendi**
Lehen mailako kadeteak.
Eguena. 11:30. Ipintza.

**XV. NAZIOARTEKO JUBENIL MAILAKO TXAPELKETA**
**Real Madrid-Udinese**
Eguakitz Santua. 17:00.
Agorrosin.

**ESKUBALOIA**
**Bergara-Arrasate**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**
**Bergara-Iraurgi**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:00.
Mariaren Lagundia
**Bergara-Arabako Kanpusa**
Senior mutilak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

**NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA**
Zapatuan, M. Altuna institutuan
**Gu Geu-Blue Star**
*Arb. Zutaz Pentsatzen. 15:00*
**Nifis-Zutaz Pentsatzen**
*Arb. Azkenak. 16:00*
**Azkenak-The Road Island**
*Arb. Nifis. 17:00*
Domekan, M. Altuna institutuan
**Azkenak-Blue Star**
*Arb. Antolaketa Batzordea. 12:00*
**Potzu TZ-The Road Island**
*Arb. Antolaketa Batzordea. 12:00*

**PILOTA**
Gipuzkoako txapelketa:
**Muruamendiraz eta Idiakez-Errasti anaiak**
Seniorrak binaka.
Eguena. 19:30. Udal Pilotalekua
Profesionalak:
Lau eta erdian:
**Lejardi-Koka**
Binaka:
**Etxaniz eta Balerdi-Berasaluze VIII eta Zezeaga**
BBK saria:
**Taberna-Zearra**
Zapatua. 16:45. Udal pilotalekua

# V. Txakur leren lasterketa

## Domekan jokatuko da Gorlatik Trekutzera



Argazkian ikus dezakezuen Axen Garitano bergararrak aurten ez du lasterketan parte hartuko.

**30-40 partaide inguru izango dira zapatuan, goizeko hamaiketan hasiko den Gorlako V. txakur leren nazioarteko lasterketan. Gorla eta Trekutz arteko hamar kilometroko ibilia egin beharko dute parte hartzaileek txakurrez tiratutako lerekin.**

Duela bost urte, Axen Garitano, Julen Narbaiza, Mikel Garitano eta Alex Alberdi txakurren lasterketa txapelketa antolatzera animatu ziren. Izandako arrakasta ikusita bosgarren urtez antolatzeko ez dute arazorik izan. Orain arte, Euskal Herri eta estatuko jendea inguratu da baina aurten Toulouse eta Andorrako partaideak ere hartuko dute parte.

Lasterketan erabiltzen den txakur kopuruaren arabera, maila ezberdinak daude: batzuk bizikleta erabiltzen dute eta txakur kopuru handiagoa dutenek, trineoa. Orain arte, txakur nordikoak erabili dira lasterketan baina datorren urterako, aukera zabaltzea pentsatzen dute antolatzaileek. Julen Narbaizak esan digunez “txakurrak odol beroa izan behar du. Jaiotzetik, izaeraz azkarra izan behar da. Entrenamendua ere garrantzitsua da txakurrari norabide bat erakutsi behar baitzaio, baina azkartasuna odolean eraman behar dute”.

Maila bakoitzeko azkarrenek eta partaide guztien artean hiru denbora onenak egiten dituztenek jasoko dituzte sariak. Azken urteetan Goyo del Real madrildarra izan da garaile. “Frantziarrak eta Andorrakoak maila onean daude eta del Realek errekorrari eusteko zailtasunak izango dituela uste dut” esan digu Julen Narbaizak.

Bergarako Udalak beste hainbat etxe babeslek emandako diru laguntzarekin egingo diote aurre presupuestoari. B

# Real Madrid eta Udinesse Agorrosinen

**Aurten ere** Realak Nazioarteko Jubenil Mailako Futbol Txapelketa antolatuko du Aste Santuan. Agorrosinen Real Madrid eta Udinesse taldeak izango dira Eguakitz Santuan. Iaz Agorrosingo zuloak zirela eta, ez zen partidurik izan baina duela bi urte Bartzelona eta Ajax taldeak ikusteko aukera izan genuen. Partidua 18:00etan hasiko da. Sarrerak 600 pezetan salduko dira. B

# Frontenis txapelketako finalak

**Binakako** frontenis txapelketako final aurrekoak eta finala jokatuko dira zapatun Osintxun. Goizeko 9etan, Azurmendi eta Orobengoak Uribarri eta Gallastegiren kontra neurtuko dituzte indarrak. 10:00etan, berriz, Caballero eta Galan, Albisua eta Vallejoren aurka arituko dira. Finala 11:00etan jokatuko dute aurreko bi partiduetako irabazleek. B

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g ☎ 76 07 92

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**


**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisu amueblatua salgai Martokon. 76 46 70.

### Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. 76 40 33 (Ramon).

Lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 76 03 31 telefonora.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. Deitu 78 36 69 telefonora (20:00-22:00).

Garajea salgai Aranerrekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Burdiñaten. 38 m2. Deitu 76 19 54 telefonora.

Kotxe txiki batendako garajea salgai Ibargarain. 650.000 PTA. 76 57 93.

Garajea Torrekuan. 950.000 PTA. Deitu 76 19 72 telefonora.

### Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Garajea alokairuan Aranerrekan. 76 46 54.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 76 50 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. Deitu 76 70 63 telefonora.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 11 89.

Lokala salgai A. Flemingen. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. 76 25 67.

### Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. Deitu 76 29 95 telefonora.

### Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m lokala alokairuan. 76 35 09.

### Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nu Osintxun. Deitu 76 08 21 telefonora.

40-100 m2 bitarteko lego baterako lokala alokairuan hartuko nu Bergaran, herri erdian edo industrialdean. 76 24 33 (21:30-22:3

## 4. LANA

### Eskaintzak

Andre batek zaharra zaindu edo etxeko garbiketak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebuk eretan helduak zaindu eta etxeko lanak egin lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliar batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64

47 urteko emakume tek astebukaera eta jaiegunetan zaharrak zaindu eta etxeko lan egingo lituzke. 76 5

Neska batek orduka la


INFERNUKUA TABERNA
Masterreka 23 ☎ 76 18 49

LEGO WATCH SYSTEM
Orain zeure eskura Etxeberrian.
Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 76 23 94 - 76 12 65.
ETXEBERRIA erlojutegia

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

Bergara U Pair
IRLANDA, ESKOZIA, INGALATERRA, FRANTZIA, ESTATU BATUAK.
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI... ETA BESTE MILA LANPOSTU.
Telefonoa eta faxa: 76 26 06

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
A. Fleming 7 BERGARA
☎ 76 53 15

egingo luke. 939 47 2584.

Neska batek zaharrak zaindu (gauez ere bai) eta garbiketa lanak egingo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

Tabernari lanak egingo nituzke. 76 03 31.

**Eskaerak**

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 48 76.

Errepartoa egiteko furgoneta duen mutila behar da. 76 10 71.

25 urtetik beherako mutila behar da lanerako. 76 19 46 (Juan).

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 76 52 93.

Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko (7:15-15:15). 76 53 27.

## 5. IRAKASKUNTZA

**Eskaintzak**

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Mate, fisika eta kimika klaseak. Lizentziatua. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

Majisteritza ikasle batek LH eta DBHko klaseak ematen ditu. 76 11 81 (Ainara).

**Eskaerak**

Bi lagunek frantses klaseak hartuko lituzkete. 76 36 83.

2. Batxilergo Teknikoko fisika klaseak hartuko nituzke. 76 39 15 (Jon).

## 6. AUTOAK/MOTOAK

**Saldu**

Golf TDI kotxea salgai. Deitu 76 64 70 telefonora (Mikel).

Seat Malaga kotxea salgai.150.000 pezeta. 76 37 51.

Ford Escort kotxea salgai. ZA-F. 76 09 85.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauez).

Denda karro bat salgai. 76 31 57 (gauez).

## 7. ANIMALIAK

**Saldu/Eman**

Lau txakurkume oparitzen ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

Txakurra (bi urte) oparitzen da. 939 47 25 84.

## 8. DENETARIK

**Saldu**

Bigarren eskuko telefonoa erosiko nuke. 76 09 99 (gauez).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Neska baten jaunartzeko soinekoa salgai. 76 10 94.

Ziklismoko oinetakoak salgai. 76 01 31.

Taxi geltokia traspasatzen da Antzuolan jubilazioagatik. 76 22 81.

Soinua salgai. Oso egoera onean. 76 56 65.

Logela klasikoa salgai. 19 10 95 (Manoli).

Macintosh Centris 650 ordenagailua salgai. 79 97 60.

Katu siamesak salgai. Hilabete t'erdi. 76 17 35.

Filateliako 0,10 cm.ko zeilua saltzen dut. 76 12 86 (M. Karmen).

Aspes hozkailua salgai. 10.000 PTA. 76 06 81.

**Erosi**

Aspiradora bat erosi nahi dut. 76 04 86.

**Galdu**

Txamarra bakeroa aurkitu dut. 76 17 84.

**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

**Langai Udaletxean**: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

***SUKALDARIA***
- Bilbo inguruan kokatutako enpresa baterako.

**Baldintzak**
- 3 urteko esperientzia kartadun jatetxeetan.
- Ibilgailua izatea.
- Erref. 6819/2

***SUKALDEKO LAGUNTZAILEA***
- Catering enpresa baterako (Arrasate).

**Baldintzak**
- LH II Lanbide Hezkuntza, Ostalaritza, egina.
- Praktiketako kontratua.
- Erref. 7025/3

***ARDATZ ANIZTUNERAKO TORNULARIA***
- ALE baterako (Deba Garaia).

**Baldintzak**
- Bi urteko esperientzia tornu ardatz aniztuneko tornulari lanetan.
- Laguntzaile edo pioi espezialista lana egitea.
- Deba Garaian bizi izatea hobetsiko da.
- Erref. 7134/1

***SUKURTSALEKO ZUZENDARIA***
- Banketxe baterako (EAE eta Nafarroa).

**Baldintzak**
- Goi mailako titulua: Aktuariala, Ekonomia zientziak, Enpresa zientziak, Zuzenbidea, Injinerutza edo Matematikak.
- Ingelesa menperatzea. Euskara eta frantsesa jakitea baloratuko da.
- Finantza edo merkataritza arloan bi urteko esperientzia gutxienez.
- Erref. 7160/1


Haurdun bazaude
LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jazteko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale 30
ARRASATE
Tf. 79 05 80

# Gipuzkoako erretablistikari buruzko liburua

## Miguel de Irazustaren lana aztertzen da, tartean, Santa Marinako erretaula

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Ondare Historiko-artistiko eta Museo zerbitzuaren eskutik, Miguel de Irazusta arkitektuaren lanari buruzko liburua argitaratu berri du.**

Liburuaren izenburua "Gipuzkoako Erretablistika. II. Miguel de Irazusta" da eta Maria Isabel Astiazarainek idatzi du. Miguel de Irazusta arkitektu ezagunaren bizitza eta obrari buruzko datuak agertzen dira liburuan.

Bestalde, liburuaren atal nagusian, 130 orrialde, arkitektuaren lanari buruzko azterketa egiten du egileak. Atal honetan, besteak beste, arkitektoaren lan hauek aztertzen dira: Madrilgo San Felipe el Realeko komenturako traza, Villarrubia de Santiagoko (Toledo) San Bartolome elizako erretaula nagusia, Valladolidgo Karmeldar Oinetakodunen komentuko San Joakin eta Eskuaren Andre Mariaren kaperetako erretaulak eta Valladolidgo San Agustinen komentuko erretaula nagusia.

Horiekin batera, Gipuzkoako hainbat elizatan egindako lanak, tartean, Bergarako Santa Marina parrokiakoak.

Hain zuzen ere, Santa Marinako erretaula nagusia eta Purgatorioko Arimen eta Errosarioko Andre Mariaren erretaulari buruzko azterketa sakona egiten du egileak, atal honi ia 40 orrialde eskainiz.

Oxirondoko Santa Marinan egindako lanetan erabilitako eskema Gipuzkoan egin zituen obra guztietarako erabili zuen Irazustak. Segura, Olaberria eta Anoetako parrokietan, esate baterako, Santa Marinako eredua jarraitu zuen arkitektuak.



Santa Marinako erretaula nagusi eta alboko erretaulari buruzko hainbat argazki dakar liburuak.

### XVIII. mendeko arkitektura

Miguel de Irazusta XVIII. mendearen lehen erdiko Gipuzkoako arkitekturako izenik ospetsuenetako bat dugu. Berari buruz daukagun lehen informazio-iturria elizako dokumentu batean aurkitu du liburuaren egileak: Alkizako parrokian aurkitu duen bataio-agirian, hain zuzen ere; berau 1666. urtekoa da. Bestalde, 1743. urtean hil zen, hilabete batzuk lehenago Segurako Andre Maria Jasokundekoaren elizako erretaula nagusiaren antolamendua erakusten zuen marrazkia prestatu ondoren.

Arkitektua hil ostean, Anoetako parrokiaren alboetako Andre Maria Arrosariokoaren eta San Sebastianen erretaulak, berak lagatako marrazkietan oinarrituz egitea itundu zen.

Oxirondoko Santa Marinako erretaula nagusia 1742. urtean amaitu zuen. Dekorazio bikainekoa, erretaula bere artelana da eta ez eskulturetarako -Salvador Carmonaren eskultura-lanak- marko hutsa. XVII. mendeko erretaula barrokoen eta erretaula errenazentisten lekuan, irizpide koherente eta unitario batean oinarritutako eraikuntza moldatu zuen.

Liburua inprimitzeko kalitatezko papera erabili dute eta azala oso txukuna da. Bestalde, kalitatezko argazki haundiz apainduta dago liburua. Guztira 234 orrialde ditu. 2.500 pezetaren truke eskura dezakezue liburudendatan. B

KONDE
PANADEROKUA

Burdinate 1 ☎ 76 02 57

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

# 2.000 haur, II. Haur Kantatan

## Musika Eskolako Haurren Abesbatza ere izango da

**Musika Eskolako Haurren Abesbatzak II. Haur Kantatan parte hartuko du apirilaren 19an, domeka, Anoeta belodromoan. Jaialdia Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak antolatu du eta herrialde osoko haur abesbatzek hartuko dute parte.**

Jaialdia eguerdiko 12etan hasiko da eta hainbat ekitaldi izango dira egun guztian zehar. Egitaraua honako hau da: eguerdiko 12etatik 12:30etara, abesbatzen emanaldia izango da.

Gipuzkoako haurren abesbatzez gain, Hego eta Ipar Euskal Herritik eta Asturiasetik etorritako abesbatzak ere izango dira; 2.000 haur baino gehiago izango dira kantuan. Guztiak bat eginda, Tomas Aragüesen "Jimmy potxolo" eskainiko dute, Euskadiko Orkesta Sinfonikoaren laguntzarekin eta Juan Ignacio Ocon-en zuzendaritzapean.

Ondoren, bazkaria izango da eta arratsaldeko 15:00etatik aurrera, haurren jaialdia izango da. Besteak beste, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, sokatira eta karaoke saioak eta Alaitz eta Maiderren emanaldia izango dira.

Bestalde, Donostiako alkateak harrera egingo die udaletxean jaialdian parte hartuko duten abesbatzen ordezkariei eguerdiko 12:30etan, eta arratsaleko 18:00etatik aurrera Donostiako kultur etxe guztietan, Kantatan parte hartuko duten zenbait abesbatzek kontzertuak eskainiko dituzte.

Haur Kantata antolatzen den bigarren aldia da aurtengoa. Antolatzaileen asmoa lau urtetik behin antolatzea da. Bergarako Musika Eskolako Haurren Abesbatza 39 lagunek osatzen dute eta zuzendaria Kristina Larrañaga da.

Bestalde, Musika Eskolako ikasleek emanaldi pedagogikoak eskaini dituzte aste honetan zehar Zabalotegiko aretoan. Eguaztzen, eguen eta eguakitzean, urtean zehar eskolan landutakoa erakusten aritu dira guraso, familiarteko eta lagunei batez ere.

Musika Eskolan datorren ikasturterako matrikula egiteko epea aste honetan zabaldu dute eta ekainaren 15era arte izango da zabalik. B



Musika Eskolako Haurren Abesbatzan 39 lagun ari dira.

**salduenak / martxoa**

## LIBURUAK

**Euskaraz**

1. JOSKERA LANTEGI
   Juan Gartzia. IVAP
2. OSTEGUNAK
   Jon Arretxe. Elkarlanean
3. MAITASUN ELABERRIAK...
   Luis Sepulveda. Txalaparta
4. HERIOTZAREN ITZALPEETAN
   Andolin Eguzkitza. Txalaparta
5. TENTAZIOAK
   Jasone Osoro. Elkarlanean

**Erdaraz**

1. BEATRIZ Y LOS CUERPOS CELESTES
   Lucia Etxebarria. Ancora y Delfin
2. LA DAMA DE ABU SIMBEL
   Christian Jacq. Planeta
3. LA PIRAMIDE ASESINADA
   Christian Jacq. Planeta
4. LAS CENIZAS DE ANGELA
   Frank Mc Cort. Maeva
5. DIEZ MENUS DE TEMPORADA
   Karlos Argiñano. Asegarce Debate

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

## DISKOAK

1. TITANIC
   James Horner-en soinu banda
2. ANA, JOSE, NACHO
   Mecano
3. RAY OF LIGHT
   Madonna
4. LA POLLA EN TU RECTO
   La Polla
5. VIRTUAL
   Iron Maiden
6. LA NUEVA ERA
   Amistades Peligrosas
7. DEATH TO THE PIXIES
   Pixies.

*Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko*

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Gizona. 2. Sendagileak. 3. Gazte arrak. Einstenioa. 4. Niri. Oxigenoa. Kiskali. 5. Erakunde militarra. Norbaiti. 6. Bostehun. Iparraldean, zuloa. Bokala. 7. Egona. Lasterketetarako ibilgailu txiki. 8. Zero. Bat. Musika nota. Eako biztanle. 9. Behartsuak. Bokala. 10. Gesala. Zintzo.

### Goitik behera

1. Artamenduak. 2. Zigorra. Azkenekoa. Kontsonante bikoitza. 3. Zatitzen duena. 4. Gari. Zango-atal. Osmioa. 5. Afrikako ibaia. Egonkortasuna haunditzeko piusa. 6. Sindikatu bat. Jupiterren satelitea. Behorra bero egon. 7. Zikoitzak. Bokal errepikatua. 8. Errep., gorotza. Hitz grekoa. Euskaraz eta kitto! 9. Txarrera. Bokala. 10. Bokala. Dozena erdi. Garraio-mota.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

1. Gizonezkoa. 2. Osagileak. 3. Mutilak. Es. 4. Eni. O. Erre. 5. NATO. Inori. 6. D. Ziloa. E. 7. Izana. Kart. 8. O. I. Si. Ear. 9. Arloteak. E. 10. Kresala. On.

*Goitik behera*

1. Gomendioak. 2. Isuna. Z. Rr. 3. Zatitzaile. 4. Ogi. Oin. Os. 5. Nilo. Lasta. 6. ELA. Io. Iel. 7. Zekenak. Aa. 8. Ka. Ro. AEK. 9. Okerrena. O. 10. A. Sei. Tren.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

## *Zein da baserri honen izena?*

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek erantzuten dituzun!**

1. Zeintzuk dira Geyser-Gastecheko akzionistak?
A- Fagor eta IBM
B- Fagor eta Lacor
C- Fagor eta Vaillant

2. Hiru hauetatik, nork irabazi du Gorlako Txakur leren lasterketa?
A- Hakinenek
B- Julen Narbaizak
C- Goyo del Realek

3. Herriko bi elkartek euren urteurrenak ospatzen dituzte egunotan. Zeintzuk?
A- Sagarpe eta Pol-Pol
B- Sagarpe eta Gure Ametsa
C- Gure Ametsa eta Pertxa

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Toki Ona** bodegoian izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Jose Luis Hurtado**rentzat izan da Osintxu asadorean bi lagunendako afaria. Zorionak Jose Luisi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Errotalde jauregia / "Ana"**. Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-B**.

**BONOFOTOA** ______________________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izena-deitura: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**TOKI-ONA**
**Bodegoia-taberna**

Matxiategi 1
Telefonoa: 76 39 53

**Sagarpe elkarteko sukaldari ospetsuenetakoa den Jose Gorrotxategirekin izan gara aste honetan. Burduntzian gertatzen duen bildotsak ospe handia dauka eta asko dira berak gertatutako platerrekin gozatu dutenak.**

# Jose Gorrotxategi

**Sagarpeko sukaldari ofiziala zara?**
Asko gaude baina asko ibiltzen naiz, bai.
**Non ikasi duzu sukaldaritza?**
Soziedadean bertan, besteei ikusita. Ni ere saiatzen naiz dakidana besteei erakusten.
**Zenbat bildots gertatuko zenituen?**
Bueno... Orain 45 urte hasita, atera kontuak.
**Bildotsa burduntzian ala labean?**
Burduntzian nahiago.
**Zenbat denbora behar da bildotsa ondo gertatzeko?**
Altuera eta suaren arabera baina bi ordutik gora bai.
**Zein da "Gorrotxaren tokea"?**
Ez dakit, binagretia beharbada.
**Bildotsak nondik ekarritakoak dira?**
Harategian apartatzen ditut, Leturianean.
**Zelakoak izan behar dira?**
Burduntzian gertatzeko, 6,5 Kg.tik gorakoak eta grasadunak.
**Okela ala arraina?**
Arraina.
**Plater bat?**
Legatza labean.
**Jan ezin duzun bat?**
Ez dago gustatzen ez zaidanik.
**Edari bat?**
Ardo on bat.
**Postre bat?**
Gatzatua.
**Bazkaria prestatu ala jan?**
Prestatzea hobe.
**Etxean nork prestatzen du?**
Andreak.
**Fregaua egiten duzu?**
Ontzigarbigailua daukagu baina ez dago inkonbenienteik hortarako.
**Zer gosaltzen duzu?**
Gaur (martitzena) Urkulun izan naiz; han laranja bat eta etorritakoan bokau bat.
**Telebistako sukaldaritza saioak jarraitzen dituzu?**
Bai.
**Sukaldari bat?**
Argiñanok berba ondo egiten du baina gauza arraro asko prestatu ere bai, espezie asko erabiltzen ditu.
**Sagarpera egunero etortzen zara?**
Bai, goiz eta arratsaldez.
**Zer egiten duzu?**
Lagunekin egon eta bodegero eta mantenimendu lanak.
**Zenbat ardo botila dituzue?**
Momentuan 200 bat.
**Ardo bat?**
Kalitate eta prezioari begiratuta, Viña Real.
**Txikiteoan ibiltzen zara?**
Bai, 9etatik 10 t´erdiak arte.
**Erramu Zapatuko feria atsegin zaizu?**
Bai, ematen dugu buelta bat. Ganaua ikusi, erosketaren bat egin...




IGELTSERITZA BIAK, S.L. IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78


ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
AROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK
Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tf.: 76 55 74

Maxim's
☎ 76 20 61



# *Bergarako beteranoak, 1966*

Ipintzan aspalditik antolatu izan ohi dira futbol txapelketak. Seminarioan bezala, Agorrosin inguruan ere antolatzen ziren garai batean eta gaur egun ere uda partean antolatzen dira oraindik.

Aste honetako argazkian 1966ko txapeldunak agertzen dira. Txapelketa Bergara Kirol Elkarteak antolatzen zuen eta 10 bat taldek hartzen zuten parte.

Honako hauek dira bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita:

**Zutik:** Moises Altuna "Plaentxiakua", Lu Mari Egaña, Sabas Igartua, Xabier Muruame diaraz "Xapa", Joseba Linazisoro eta Juan Ega "Pitia".

**Makurtuta:** Mateo Salaberria, Jose Lu Sanz, Angel Mari Linzoain eta Jose Maria Linz zaburu.

*Argazkia: Juan Kruz Azka*

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 76 71 19

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria hornikuntzak UNIFE Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

# JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK




San Lorentzo Industri Poligonoa,
Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91.

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR
Sukaldeko altzariak

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



**LOGELETAN maisuak**

**Zapatu arratsaldeetan zabalik!!**



**Eta orain 2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa erakusketa**

Etxe Mobel, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalek zuzendua. BENETAN HARRIGARRIA!

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxa: 79 41 82

**ARRASATE**